


DEBOZIÑO BATZUK

Agustin Kardaberaz

Iturria: *Euskal lan guztiak*, Agustin Kardaberaz (faksimilea).
La Gran Enciclopedia Vasca, 1974.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/K/KardaberazDebozino.htm>


Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.



**JESUS, MARIA, TA JOSEREN
DEBOZIÑO KO LIBRUTXORIK ATARARIKO
DEBOZIÑO BATZUK**

JESUSEN KONPAÑIAKO
Aita Agustín Kardaberaz-ek
Bizkaiko Kristiñau debotoai
euren arimen onerako
ofrezietan deutsenak.

1764.en urtean.
BEAR DAN LEGEZ.
Iruñean: Antonio Kastilla-en etxean.





IRAKURLE BIZKAITARRARI

Bakust, Irakurlea, ta bakutsu ondo, irakurtean asko txito lotuak direala: eta berba guztiak, eta bakotxa euren gustora ezpadakuste, bertan espantuak artu, ta nastuten direala. Askatuago, edo libreago gura zaitut, Dotrinako Kartillatxuan esan neban legez. Juizio, edo burua daukanak, errazoe au erraz ikusi, ta ondo ezagutuko dau. *Amudio* esan, edo *Amodioa*, guztia bat da: Nik *Amodioa*, *amorioa*, *amorea* usetan dot. Jaungoikoa esan, edo laburrago *Jainkoa*, *Oraziño*, *Orazio*, *Deboziño*, edo *Debozioa*, ta orrelan besteetan. Zeuk bata, edo bestea, gura dozuna orrelangoetan esazu. Ez arren señak legez ikaratu; ezpada gizonak legez juizioaz bata besterik atara, ta ondo irakurri, ta erraz berba egin bear dozu.

Eun, da zazpi urte da, gure Aita Ripalda famaduaren Dotrina, Lizenziadu Kapanaga Mañariko Sazerdote jaunak, Bizkaiko Euskeran atara ebal. An daust, zelan emeko gure modura berba asko usetan, ta akabetan dituan. An dakust, zelan ederto baten diñoan; Kurutze santearen: *Aitearen*, ta *Semearen*, *Jaungoikoaren*: *Aita gurea*: *gure*, *zure*, *Aitea*, ta *Semea*, ta besteak: eta labur-laburrago, ta obeto eskribietan, ta usetan dira.

Orañ eun, da zazpi urte legez, gaur bere guztiok esatea, errazoe da: *Aitearen*, *Semearen*, *Kurutzearen*, ak diñoan legez, beste berbetan bere, artikulo, edo arteko *ren* usadu bear da. Eta nolan *Jaunari*, *Semeari*, *Gizonari*, ta orrelan guztietan esaten dan; alan Jaunaren, Semearen, Gizonaren, eta beste guztietan onelan beti esatea obago da. Erregla au da, persona, edo gauza bat, singularean, Gramatikak diñoan legez, esaten danean. Baia pluralean, edo asko diranean, esan bear da: *Jaunen*, *Gizonen*, *Semeen*, eta onelan eskribidu, ta pronunziadu bear dira.

Kurutzearen señaleara ondo ta erreberenziaz egiteko iakin bear dozun Dotrinea da, Elexa Santeak modu bitan usetan dabela. *Signatu*, ta *Santi-guatu* esaten da. Euskera garbian da *señaladu*, edo *señaleara egin*. Orañ letrak trukadu (beste askotan legez), eta *zeñatu*, edo *ziñatu* esaten da. Elexak Sazerdoteoi aginetan deusku, esku zabalagaz. *Kurutze santearen señaleara egin*, &c latinez, iru Kurutze txiki egitea: bata bekokian, bestea aoan, ta bestea bularrean: eta Mezatako Ebanjelioan iru orrek egiten dira: ta bestela gutxitan. Beste Kristiñabak eskua krutzeturik au egiten dabe. Zuk gura dozun legez, baia deboziñoaz, egizu.

Bigarrena da: In nomine Patris, &c. edo *Aitearen*, ta *Semearen*, ta *Espiritu Santuaren izenean*, *Amen*. Kurutze andi bat bekokiti bularrera, ta

ezkerreko sorbaldati eskuñekora egitea: eta au txito askotan Elexak aginduten deusku, alan Mezan, nolan Errezo Dibinoan: eta zeuk fede, ta deboziñoaz askotan egin bear dozu, Dotrineak diñoana legez.

Iru Kurutze egietan, *Kurutze santearen*, da beste berbak fede andiaz klaru, ta osoro beti esan egizuz. Kurutze andi bat egitean sosiguz, ta klaru esan: *Aitearen*, ta *Semearen*, &c Sekula ez esan: *Aitien*, ta *Semien*, edo orrelango berba laburtorik; ezpada orañ eun urte, ta guziago kasten zan legez, iru Personen Izenak: *Aitearen*, ta *Semearen*, ta *Espiritu Santuaren Izenean*. Sekula ez esan: *Aita*, ta *Semea*, ta *Espiritu Santua*; ezpada, *Aita*, ta *Semea*, ta *Espiritu Santua*.

Euskerak bere Erregla suabe, ta ederra dauka. Bokalean *Aita*; ta *Semea* legez, berbak akabaeran direanean, esateko: *ta* klaru, ez *da*. Bokalean akabetan ez direanean; *Aitearen*, ta *Semearen* legez, txito suabe esateko *da*; alan esaten ezta: *Ama*, ta *Aita*, edo *Aita*, ta *Ama*: *Andrea*, ta *Gizona*, edo *Gizona*, ta *Andrea*; ezpada: *Aita*, ta *Ama*, *Gizona*, ta *Andrea*; *Andrea*, ta *Gizona*. Orrelan bada klaru, ta indarragaz beti esan bear da: *Aitea*, ta *Semea*, ta *Espiritu Santua*; ez *Aitea*, ta *Semea*, &c Baia konsonanteagaz akabetan, txito suabe esan bear da: *Aitearen*, ta *Semearen*, ta *Espiritu Santuaren Izenean*. *Gizonaren*, ta *Andrearen*, eta orrelan besteetan. Euskaldun askok erreparo au iakin, edo egin eztabe. Baia geure Euskeraren Erregla seguru, ta eder, beti gorde bear dozuna au da: eta Maisuak ondo erakatsi bear dabe.



IRAKURLEARI JESUS, MARIA, TA JOSEREN AMORIOA

Emen iakin bear dozun Dotrina erraza da, Jesus, Maria, Joserren, da Santuen Deboziñoa Errezo luzeetan eztagoala. Zetan bada, edo orreen Deboziñoa zer da? Egiazko Deboziñoa da gure Relijio santuko ejerjizio, aktu, edo obra on bat, geure biotz, edo arima Jainkoaren borondate, edo gustoko gauzetara gogo bizi santu bategaz daroana: eta gogo au iru gauza oneetan dago, ta erakusten da.

Lenengoa da *Adoraziñoa*, edo Jainkoa, Birjina Ama, edo Santuak, egiazko fede bizi, Espiritu umill, firme, ta prest bategaz biotzeti adoraetea.

Bigarrena da *Inbokaziñoa*, edo geure trabajuetan Santuetara biotzeti, gure erremediorako biurtutea, Santuen bitartez, geuretzat, edo besteentzat, gura doguna, Jainkoari eskatu, ta alkanzetako.

Irugarrena *Imitaziñoa*, edo Santuak imitaetea, beren birtuteetan irarrituaz, konzienzia, edo arimako garbitasunean, umildade, pazienzia, karidade, miserikordia, ta besteetan.

Deboziñoaren izate geiena, edo izan egiazkoa irugarren onetan dago, eta zure Deboziñoako Santuai onek atseginik andiena emaiten deuse: aek egin ebena, zuk egitea, edo Jainkoaren borondate, aek legez, zure estadu, edo bizimoduan zuk beti egitea lurrean, gero aen lagun ditxoso izateko beti zeruan.

Kristiñau asko euren buruz, Deboziño, ta Errezo luzeak artu, ta ezin kunplidurik, presaka, ta itoten legez oi dabilta, ta lenago, ta bearrago direan obligaziñoai eranzuteko leku, ta gogo guztia kendu, ta deabruak alde orretarik engañadu oi ditu: eta errezo guztiak euren gustora egiten ezpadituez, bakerik ez, eta inkietude andian geldietan dira. Ze lastima!

Ez Kristiñabak, ez, Jainkoak, Ama Birjinak, eta Santuak orrelangorik gura eztabe. Obago da, Errezo gutxiago, ta ondo egitea: zure ditxa eztago gauza andiak, eta asko egitean, ezpada egunean egunengo txikiak, Jainkoaren borondate dalako, ondo, ta espiritu orregaz egitean. Santu asko bide iakin onetarik zerura ioan zirean. Errezo luzean bearrak Santuak eztabe: gurago dabe, zuk eurai fedeaz deitu, ta bear dozun biotzeko argia, ta grazia esketea, eurak legez, Jaunaren borondateari, ta zure obligaziñoai ondo beti eranzuteko.

Jesu Kristok Ebanjelioan (Matt. 6.) esaten deusku: *Oraziñoa egitean, berba asko ez egin*. Erakasten deusku, Oraziñoaren izatea, edo izana berba

asko esatean ez dagoala; ezpada arimako deseo, edo afekto piadosoak biotzean, edo biotzeti Jainkoari esatean, edo erakustean: orregaiti biotzeko oraziñoa, edo mentala deritxo: eta, oraziño bokala aoz, edo berbakaz egiten danari. Biak baten egiten dira, baldin biotzeti, ta aoz arimako deseoa adierazoten bada, eta Jainkoa barruti, ta kanpoti alabetan bada.

Oraziño bokalak, edo aozko errezoak laburrak izatea obago izan ditekete: eta barruko deseo santuak bizierazoteko, edo biotza berotuaz Oraziño batak besteari lagunetako beti berbak izan bear dabe. Alan dakusku, Elexa Santeak, Espiritu dibinoaz gobernadurik, Oraziño bokal, edo aoz esateko, asko, ta txito ederrak, urteko Domeka, ta Iaietan daukazala; baia guztiak laburtxoak, eta guztiro bizi, ta beroak. Erregla au Santuen Deboziñoetan gorde bear dogu: eta errezo laburretan biotzeko deseoa biziro erakutsi. Obago da Pater noster bat espiritu, ta deboziño andiaz esatea, asko prisaka, ta atenziño baga errezetea baño.

Ama Birjinea, ta Santuak bitarteko artu, ta Jainkoari feda biziagaz dei egin bear deusagu: geure arimako, ta gorputzeko nekeetan konfianza osoagaz Jesus geure Salbadoreagana guztien gañean ioan, edo biurtu bear dogu: bada bereak dira, ta ak emonik gureak, aren ondasun guztiak. Santu guztiak orrezaz baliadu, ta añ aberats, ta Santu egin zirean: eta onek bitarteko doguzala, txito gura dabe, Jaunari guk esketea: eta Jainkoak, bere Amak, eta Santuak gure konfianza onegaz txito pagadurik, eska dogun guztia, eta guziago, edo obago beti seguru emoten deuskue.

Elexako Maisu Santuak euren dotrina, ta ejenploakaz erakatsi deuskue, Jaunari bere Santuetan gloria emoten, eta gure oraziñoetan zer, ta nolan eskatu bear dogun. Biotzeko deseo santuen señaleak, aoz egiten direan Errezoak dira. Señale agiri oneen artean arimen probetxu, ta konsuelo andikoak beti, ta duda baga, dira Ama Birjinearen Errosarioa, Kalbarioko Jesus maitearen Pausoak, Aita San Joserren Misterio dibino, gozo, ta doloreak, onen, da beste Santuen Nobenak. Deboziño oneek ondo egiten badira, biotzeko amorio bero gordea eurai kanporunz erakusteko, txito asko balio dabe. Fede, ta konsiderazioaz, espiritu, ta arimako irabazi andirako. Jesus, Maria, ta Joserren bendiziñoak artu egizuz. Amen.



**AMA BIRJINEAREN
ERROSARIO SANTUA
BEAR DAN DEBOZIÑOAGAZ
ERREZETAKO MODUA**

Ama Birjineagaz berba egiten asteko, sosiguz, ta ondo ziñatu, ta Neure Jesu Kristo Jauna, &c. biotzetik esan, eta gero Elexak latinez diño-ana: *Domine*, &c. batek bakarrik asiko dau enelan.

V. Idigiko dituzu Jauna, neure ezpanak.

R. Eta neure aoak esango ditu zure alabanzak.

V. Begira zaitte, Jauna, neure sokorrura.

R. Eta erdu laster niri lagundutera.

V. Gloria Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari.

R. Asieran zan legez, sekula guztietan, orain, ta beti. Amen.

**ASTELEN, TA EGUBENETAKO
BOST MISTERIU GOZOTSUAK**

LENENGO MISTERIOA.

Jainkoen Semearen Enkarnaziñoa

Emen Sazerdoteak, edo beste batek Ofrezimentua esango dau:

OFREZIMENTUA.

O Birjina Maria, Jainkoen Ama miragarria, ta gure Erregina: amar Abe Maria onek, eta Pater noster au izan bitez zure biotzak artu eban atseginen erreberenzian, arako San Gabriel Aingeruak barri onak ekarri, ta Aita Eternoak bere Alabatzat, Semeak Amatzat, ta Espiritu Santuak Esposatzat artu zinduezanean. Jainkoa zure sabelean Gizon egindako Misteriorik miragarrien onegaiti arren alkanza eiguzu geure biotzetako umildade zeurearen antzeko bat, eta geure pekatuen damuaz penitentzia egiteko argia: Prinzipe Katolikoen, ta onen Erreinueta bakea, eta Jainkoa serbietako osasuna, ta grazia. Amen.

Emen Pater noster bat, eta amar Abe Maria: eta obeto errezetako, eta Induljenziak seguretako, batek beti kontu eroan, ta Pater noster, ta Abe Mariak asi, ta besteak sosiguz eranzungo dabe beti.

BIGARREN MISTERIOA.

Ama Birjineak Santa Isabeli

egin eutsan Bisitea

OFREZIMENTUA.

O Birjina Maria, Jainkoaren Ama, ta Birtute guztien Jabea! Amar Abe Maria onek, eta Pater noster au izan bitez zure biotzak artu eban atseginen erreberenzian, arako Jainkoa zeure sabelean artu, ta karidade biziaz zeure Lengusiña Santa Isabel ikustera joan zineanean, zeruko ondasunez bera betetara, eta San Joan Amaen sabelean santifiketara. Zeuben bioen artean, ta zeuben seme bien artean orduan igaro zirean Misterio eskutaduak ezagututeko, ta gure arimak penitentziaz santifiketako bear dan guztia alkanza eiguzu: eta Prinzipe Katolikoen, ta onen Erreinueta bakea, eta Jainkoa serbietako osasuna, ta grazia. Amen.

Pater noster, eta amar Abe Maria.

IRUGARREN MISTERIOA.

Jainkoen Semearen Jaiotea

OFREZIMENTUA.

O Birjina Maria, Jainkoen Ama, ta ondasun guztien Iturria! Amar Abe Maria onek, eta Pater noster au izan bitez, arako Jesus zeure sabeleko frutua munduari emon, edo iaio, eta oial pobre garbietan batu, ta abereen estrabia, edo pesebre batean eratzu zenduanean, zeure biotzak artu eban atseginen erreberenzian. Zeure Seme, ta geure Jaun onen Jaiokera santuagaiti geure arimetako garbitasuna alkanza eiguzu, bere amodioan barriro jaio gaitean: eta Prinzipe Katolikoen, eta onen erreinueta bakea, eta Jainkoa serbietako osasuna, ta grazia. Amen.

LAUGARREN MISTERIOA.

Ama Birjinearen Purifikaziño,

ta Presentaziñoa

OFREZIMENTUA.

O Birjina Maria, Jainkoen Ama, ta garbitasun guztien ontzi ederra! Amar Abe Maria onek, ta Pater noster au izan bitez, arako zeure Semea besoetan bere jarleku preziosoenean legez, gure erremediorako Tenploan ofrendadu zenduanean, zeure biotzak artu eban atseginen erreberenzian. Misterio onetako argi, ta ejemplo ederrakgaiti, arren gure arimako illuntasuna kendu, eta Jesus geure ditxa guztia ezagututeko bear dan argia alkanza eiguzu: eta Prinzipe Katolikoen, ta onen erreinoeta bakea, eta Jainkoa serbietako osasuna, ta grazia. Amen.



BOSTGARREN MISTERIOA.

**Jesus amabi urtekoa galdu,
ta Tenploan arkitu zanekoa**
OFREZIMENTUA.

O Birjina Maria, Jainkoen Ama, eta arima galduen zeruko bide seguru! Amar Abe Maria onek, eta Pater noster au izan bitez, arako Ama maitea legez zeure Semearen billa ibili, eta Tenploan zeruko Maisua legez lurrekoai irakasten aurkitu zenduanean, zeure biotzak artu eban atseginen erreberenzian. Jaun au egunean baño egunean obeto billatuteko, eta Maisu onen dotrinea obeto ikasteko, arren bere argi bero bat alkanza eiguzu: baita bere geure pekatuen penitentzia, edo Konfesiño on bat egiteko bear dan guztia: eta Prinzipe Katolikoen, ta onen erreinuetako bakea, eta Jainkoa serbidu, ta eriotza on baten grazia. Amen.

Azkenean Loretoko Ama Birjinen Letaña jakiñak esaten dira.

MARTITZEN, TA BARIKUKO MISTERIO DOLO-ROSOAK

LENENGO MISTERIOA.

Jetsemaniko Ortuan
Jesus maiteak egin eban oraziñoa
OFREZIMENTUA.

O Birjina Maria, Jainkoen Ama, ta Martiri guztien Erregiña! Amar Abe Maria onek, eta Pater noster au izan bitez, arako zeure biotzeko Semen eriotza giñoko angustiaz eskuturik odolezko izerditan desegiten zan orduan, zeure biotz maitegarriak artu eban doloreen erreberenzian. Zeure Seme Jesus oraziño atan gure pekatuakgaiti eriotzara ofrez eza eban amorio andiagaiti arren gure kulpen egiazko damu bat, ta Jaunaen borondatea beti egiteko indarra alkanza eiguzu, eta Prinzipe Katolikoen, eta onen erreinuetako bakea, ta Jauna serbietako osasuna, ta grazia. Amen.

BIGARREN MISTERIOA.
Jesus inozentea abe bati loturik
nolan azotadua izan zan
OFREZIMENTUA.

O Birjina Maria Jainkoen Ama ta pazienziaren ispillu bizia! Amar Abe Maria onek, eta Pater noster au izan bitez, arako zeure Seme ederra bere soñekoak lotsa andian kendu, azotez urratu, ta odoletan ionanean zeure biotz amoroioak artu eban dolore andien erreberenzian. Zeure Semearen guztizko paziencia, ta amore andi onegaiti arren alkanza eiguzu gure kulpen soñeko zar loa quentzeko, ta onek merezi daben kastigua, ta penak pazienziaz eroateko biotz umill bat; eta Prinzipe Katolikoen, ta onen erreinuetako bakea, ta Jainkoa serbietako osasuna, ta grazia. Amen.

IRUGARREN MISTERIOA.

Jesus onari
aranzako Koroea iosi eutsen
OFREZIMENTUA.

O Birjina Maria, Jainkoen Ama, ta triste guztien konsuelo! Amar Abe Maria onek, eta Pater noster au izan bitez zeure Seme Jesus guztien egiazko Erregeari bere Buru santua aranzaz iosi eutsenean, zure biotzak artu eban, ezin esan alako doloreen erreberenzian. Geure pekatuen eriotzko aranza orrek berari, ta zeuri emon eutsuen tormentu portitza gaiti; arren alkanza eiguzu, gure kulpai darraikazan aranza, ta nekeak ondo eroateko bear dogun paziencia: eta Prinzipe Katolikoen, ta onen erreinuetako bakea, eta Jainkoa serbietako osasuna ta grazia. Amen.

LAUGARREN MISTERIOA.

Jesus bere Kurutzeagaz
Kalbariora eroan ebenekoa
OFREZIMENTUA.

O Birjina Maria, Jainkoen Ama, eta lurrean bidezko galduen Argi ederra! Amar Abe Maria onek, ta Pater noster au izan bitez, arako Kalbario bidean zeure Semea gure kulpen karga astuna Kurutzean eroebala, ta nekeaz aen azpian iausten zala ikusi zenduanean zeure biotz umillak artu eban pare bagako doloreen erreberenzian. Jesus maiteak, eta zeuk Aita Eternoari euki zeuntseen obediencia miragarriagaiti, arren alkanza eiguzu, geure Kurutze, ta nekeen artean, aren borondateari zuen atzean iarraituteko obediencia umill bat: eta Prinzipe Katolikoen, eta onen erreinuetako bakea, eta Jainkoa serbietako osasuna, ta grazia. Amen.

**BOSTGARREN MISTERIOA.****Nolan, Jainkoen Semea****Kurutzean iosi eben***OFREZIMENTUA.*

O Birjina Maria, Jainkoen Ama, ta penen ondobagako Itxasoa. Amar Abe Maria onek, ta Pater noster au izan bitez, zeure sabeleko frutu bedeinkatua gu salbaetarren Kurutzean iosi, ta odola eriola gugaiti erre-gututen, ta illik aen Biotza lanza gogorraz idigiten ikusi, ta zure Biotzak artu eban doloreen erreberenzian. Zeure Semeen Kurutzeko dolore, ta amore guztiagaiti, arren alkanza eiguzu geure pasiño, ta gogo erabaga guztiak Kurutzean iosteko birtutea; eta biotzeko damuaz konfesio on bat egiteko bear dan guztia: Prinzipe Katolikoan, ta onen erreinuetako bakea, eta Jainkoa serbidu, ta eriotza on baten grazia. Amen.

**EGUAZTEN, ZAPATU, TA DOMEKAKO MISTE-
RIO GLORIOSOAK****LENENGO MISTERIOA.****Jesu Kristoren Resurreziñoa***OFREZIMENTUA.*

O Birjina Maria, Jainkoen Ama, ta Angeruen Erregiña! Amar Abe Maria onek, eta Pater noster au izan bitez, arako zeure Semea, eriotzea benzidu, ta gloriáz beterik Angeru, ta Santuen artean erresuzitadu, ta zeu ikustera, ta iragoko penak bere gloriáz aztu erazotera etorri zanean, zeure biotzak artu eban zeruko alegrien erreberenzian. Gure esperanzen glo-riazko Misterio onegaiti, arren alkanza eiguzu konzienzia justu garbi baten espirituko alegria: eta Prinzipe Katolikoan, ta onen erreinuetako bakea, eta Jainkoa serbietako osasuna, ta grazia. Amen.

BIGARREN MISTERIOA.**Jesu Kristok nolan zeruetara igo eban,****edo aren miragarritzko Asenziñoa***OFREZIMENTUA.*

O Birjina Maria, Jainkoen Ama, ta zeruko Ate ederra! Amar Abe Maria onek, ta Pater noster au izan bitez, zeure Seme Jauna Majestade guztiaz jantzirik zeruetara igoten ikusi zenduanean, zeure biotzak artu eban alegrien erreberenzian. Jesus maiteak Aita Eternoen eskumatati

iarririk daukan poderio guztiagaiti, arren alkanza eiguzu, zure bitartez gure biotzak lurreko nekeen artean beragana beti iasoteko grazia, ta zeu-gaz batean bera ikusi, ta adoraetako ditxea: ta Prinzipe Katolikoan, ta onen erreinuetako bakea, ta bera serbietako osasuna, ta grazia.

Amen.

IRUGARREN MISTERIOA.**Espiritu Santuen etorrerea***OFREZIMENTUA.*

O Birjina Maria, Jainkoen Ama, ta gure argi ederraren Ama santisi-me! Amar Abe Maria onek, ta Pater noster au izan bitez, Elexa Santeen argi, ta konsuelorako Espiritu Santua Semeak Aitaganik bialdu, eta zure Arimea, beste guztien ganean, edo guziak baño geiago bere Doe ederrez, ta gloriázko ondasunez bete ebanean, zure biotzak artu eban alegrien erreberenzian. Arren Espiritu konsoladore onen su gar bizi bat, zeure Biotzeko ontzi garbian legez, alkanza eiguzu, bera ezagutu, ta amaetako: eta Prinzipe Katolikoan, ta onen erreinuetako bakea, ta Jainkoa serbieta-ko osasuna, ta grazia. Amen.

LAUGARREN MISTERIOA.**Birjina Ama zerura igo ebaneko,****edo aen Asunziñoa***OFREZIMENTUA.*

O Birjina Maria, Jainkoen Ama, ta bekatarien anparu segurua! Amar Abe Maria onek, eta Pater noster au izan bitez, amodio gozozko zeure eriotza preziosoan, ta erresuzitadu, ta gloriáz iantzirik Angeruen erdian zeruetara igo zenduaneko gloria parebagen erreberenzian. Zerutar guz-tiak orduan artu eben atsegin andiagaiti, arren zeure Mantupean bizi ganean bekatarioi lagun eiguzu gure eriotzako orduan, zeure eskuetan, ta Jaunaen amorean geure arimeak emon, ta zeu ikustera betiko igo dagigun: eta Prinzipe Katolikoan, ta onen erreinuetako bakea, ta Jainkoa serbieta-ko osasuna, ta grazia. Amen,



BOSTGARREN MISTERIOA.
Ama Birjinen Koronaziñoa,
edo zeruan nolan koronadua izan zan
OFREZIMENTUA.

O Birjina Maria, Jainkoen Ama, Angeru, ta Santu guztien koroarik ederrena! Amar Abe Maria onek, ta Pater noster au izan bitez, arako Trinidad Santisimoak gloriarik andienaz, guztien Erregiña, eta Angeru guztiak baño gorago igo, ta emon eutsun Diñadade altuenen erreberenzian. Zuk or goian dituzuzan gloriako onra, ta ondasun guztiakgaiti arren alkanza eiguzu lurreko gauzak oiñpean itxi, ta zerukoak, zeuk legez, ta zeu ikusi artean, billatzeko birtutea: eta Jaunagaz batean, pekatuen egiazko damuaz guztien konfesiño on bat egitea: Prinzipe Katolikoen, ta onen erreinuetako bakea, ta Jainkoa serbietako osasuna, ta grazia. Amen.

Azkenean Ama Birjinen Letañak.

AMOREZKO, TA DOLOREZKO
JESU KRISTOREN PAUSUAK

KALBARIOKO ESTAZIÑOAK ONDO EGITEKO EJERZIZIOA

Deboziño onetan Jesu Kristogaz berba egiteko, sosiguz zeñatu bear da: kontrizioko aktua, Nere Jesu Kristo J. biotzerik egin, eta batek guztien izenean Ofrezimentua egingo dau onelan.

OFREZIMENTUA.

Aita Eterno Jaun guztiz poderosoa: Begira, ez guri, ezpada zeure Seme maite Kristoren arpegi ederrari: eta Kalbarioko Bide santu onetako Pausu guztiak bere Biotzeko amore, ta intenziñoaz batean zeure gloriarik andienerako izan bitez: eta zeruko Ejerzizio onetan direan Induljenzia, edo Parkaziñoak, guztia Aita Santuak gura daben legez eginaz, irabazi gura ditugu: eta Ama Birjinen eskuetati, Zuk naien dituzun Purgatorioko arimen sufrajioan, ta geure salbaziñorako izan bitez. Amen.


LENENGO ESTAZIÑO.
Eriotzako sententzia Jesu Kristori
emon eutsen lekua

Pensa egizu, neure arimea, zelan Jesus geure Redentorea Bariku Santu goxean, bost milla, ta geiago azote, aranzazko koroa, ta beste tormentuez ganean, Kurutzean, ta lapur bien erdian iltera Pilatosek kondanada eban.

ORAZIÑO

O neure Jesus, Erredentore maitea! Azote, arantza, pena, ta lotsaz beterik, ain isilik, ta ain umilik zeure eriotzako sententzia gure kulpakgaiti artu zenduana! Zeure Biotzeko amore, ta umildade onegaiti arren, Jauna, indazu grazia, egiazko penitenziagaz neure pekatuen kateatarik libretako, ta zeure Tribunal justuan neurk faboreko sententzia nik enzuteko. Amen.

Pater noster, Abe Maria, ta Gloria, Aita Santuaren intenziñora: ta au berau Estaziño guztietan esaten da.



Gero bakoetak esaten dau: «Miserikordia, Jauna, ni bekatariatz: Damu dot zeu ofendiduaz. Alabdua izan bedi Jesusen Pasiño santua, ta Ama Birjinen Konzeziño garbia. Indazu, Jauna, betiko zeure grazia. Amen.

BIGARREN ESTAZIÑO.

Jesu Kristori Kurutzea ipini utsen lekua

Pensadu egizu, Kristiñaba, zelan Jaunari burlaz iantzi utsen soñeko zarra tiraka koroeagaz kendu, bere soñekoa iantzi; eta koroea barriro tormentu gogorragaz bere buruan sartu utsen, ta borrero eskergak gure kulpen karga, edo Kurutzea bere ganean ipini utsen.

ORAZIÑO

O neure Jesus, Bildots guztiz mansoa, Isak justuak baño obeto zeure sakrifiziorako egurra, zeure Aiten obediencia, ta gure amoreagaiti, zeure sorbaldan eroan zenduana! Zeure Biotzeko ontasun onegaiti arren indazu grazia, neure erabagako gogo guztiak zeure borondateari biziro sujetadu, ta neure kulpai ondoen dagoken penitenzian, Kurutzea beti zeure atzean gogoti eroan, ta lurreko nekeakaz zeruko koroea irabazi dagidan. Amen.

Pater noster, ta besteak esan beti, lenengo Pausuan legez.

IRUGARREN ESTAZIÑO.

Gurutzeagaz Jesus lenengo jausi zan lekua

Pensadu egizu, Kristiñaba, zelan Jesus maitea txito nekatu, ta oñen ganean ezin egon, ta Kurutzeen kargeagaz lurrera jausi zan. Begira, zelan infernuko kanalla aek Jaunari lagundu bearrean, ostikoka, golpeka, ta arrastaka erabilla, ta nekez jagierazo eben.

ORAZIÑO

O neure Jesus, Jaun guztiz poderosoa, ta geure amorez onelan argaldu, ta lurra, jo artegiño Kurutzepean makurtua! Zeure amore, ta fin bagako pazienza onegaiti, arren zeure eskua indazu, neure kulpa astunen azpiti egiazko penitenziagaz zugana iagiteko, ta zeure Kurutzearen atzean, lurreko neke, ta doloreetan pozik ibili, ta zeure arpegi ederra zeruko glorian ikusi dagidan. Amen. Pater noster, &c.

LAUGARREN ESTAZIÑO.

Jesusek bere Ama santisimea topadu eban lekua

Pensadu egizu, Kristiñaba, zelan Kalbarioko bide onetan Jesus onak bere Ama maitea pena, ta negarrezko itxaso bat eginik topadu eban. Begira ondo, begi amorosoaz biak alkar ikusi, ta zelan biotz bata besteari amorez berba egin, ta biotz laztan biak dolorez ito, edo estutuko zirean.


ORAZIOA


O Amarik maiteena, dolorez, ta angustiaz bete! Ze ezpata zorrotzak zeure arimea iosiko eben, zeure biotzeko Semea, ta Angeruen edertasuna tratu atan ikusi zenduan! Burua aranzaz iosirik; arpegi ederra txituz, odolez, ta autsez ezaindurik; eta geure pekatuen karga astuna, edo Kurutzea ganean ebal, eta golpeka eroela. O Amarik afljituena! Arren indazu zeure Semen, ta zeure pena orren egiazko lastima bat, kulpa guzien parkaziñoa, ta zeuen amodioa betiko arkitu dagidan. Amen.

BOSTGARREN ESTAZIÑO.

Jesus maiteari Kurutzea eroaten lagunetako Simon Zirineo artu eben lekua

Pensadu egizu, Kristiñaba, dolorezko bide onetan zelan geure Jesus añ argal, ta nekez ioean, Judegu odolgiroak Kurutzearen pisuagaz ikara, ta iasteko zorian ikusi, ta Simon eritxon gizon bat Jaunari lagunetako artu eben; baia ez errukiz, ezpada zerren Kurutzeko tormentuan ilten ikusi gura eben.





ORAZIÑO

O Salbadore maitea gure pekatuen karga andia zeure ganean artu, ta gure arimen billa ain nekez pausu onetan ibili zineana, eta Simon ditxosen ejemploan, Kalbarioko bidean zeuri iarraituten, ta lagunduten irakatsi zendukuna! Iguzu arren, Jauna, zeure Pasiñoko pazienza, geure pekatuen damua, ta zeure penen lastima andi bat: Kurutzea eroaten orain zeuri lagundu, ta orren frutua goza dagigun, zeu alabaetan zaituguzala zeruko glorian. Amen.

SEIGARREN ESTAZIÑO.

Beronika esaten deutesen Andra piadoseak Jesus onari bere arpegia garbitu eutsan lekua

Pensa egizu, Kristiñaba, zelan Jaunaen arpegia txistuz, ta odolez beterik Beronika santeak ikusi, ta iru dobleko zapi garbi bat artu, ta jente guztien arteti sartu, ta arpegi dibinoa garbitu eutsan; eta iru tolezetan Jau-nak bere arpegia estanpadurik orren paguan itxi eutsan.

ORAZIÑO

O neure Jesus egiazko edertasunen Ispillua! Zenbat neure pekatuak-gaiti ezaiñago, anbat geuretzat Beronika santeaenzat legez maiteago! Bardin geure kulpak orrelan ezaindu bazinduezan; orren damu, edo egiazko penitenziak zeure odolezko izerdi, ta loiak kentzeko zapi garbiak izan bear dabe. Iguzu, Jauna, grazia biotzeko negarrakaz geure arimak garbitu, ta zeure Imajina bizi bat orretan iosteko, ta zeruan zeure arpegi ederra beti ikusteko. Amen.

ZAZPIGARREN ESTAZIÑO.

Jesu Kristo bigarreanean iausi zan lekua

Pensadu egizu, Kristiñaba, Erriti kanporako Ate baten, zelan geure Jauna Kurutzeen kargeak eridu, ta guztia argaldu, ta bigarreanean iausi, ta

lurra io eban. Begira, zelan borneruaek golpeka iaso eben: eta Jerusalem galdua utzi eban.

ORAZIÑO

O nere Jesus miserikordiazko Aita! Munduen Jabe bakarra Zu iza-nik; Errien desonrea baziñean legez, Jerusalemendi kanpora atara, edo bota zinduezan: eta orregaiti bere Erri ditxa bageari lastimaz begiradu zendu-tsan. Arren, Jauna, zeure piedade guztiaz geure arimai begiradu egiezu: eta Kurutzea eroaten nik pozik lagunduko deusut: eta gure kulpakgaiti Erri-ti bota bazaitue, guk geure biotzetan artuko zaitugu, zeugaz beti bizi iza-teko. Amen.

ZORTZIGARREN ESTAZIÑO.

Jerusalengo Andrai Jesus onak berba egin eutsen lekua

Pensadu egizu, Kristiñaba, zelan Jesus piadosoak bere desonra, ta nekeen artean, lapur infame baten gisan baioean bere, Andra piadosa, las-timaz, ta negarrez bere atzean ioazanai, esan eutsen: Jerusalemgo Alabak, ez nigaiti negar egin, ezpada zeuben buruakgaiti, zerren orreen ganera gatx andiak etorri bear dabeen.


ORAZIÑO


O neure Jesus Artzañ ona legez geure arimaen billa ibili zineana! Kalbarioko bide gogor atan, ta zeure penen artean bere, Andra piadosai, eta aetan geuri, pekatuakgaiti, bear dan legez negar egiten irakatsi zeus-kuna. Arren, Jauna, argi bizi bat iguzu, ardi onen legez zeure dei amoro-soa enzun, ta zeuri Arzañ onari legez zuzen beti, iarraituteko, eta geure biotzeko negarrakaz orañ zeuri lagundu, eta gero geure salbaziño deia zeure ao gozoti betiko enzun daigun. Amen.

BEDERATZIGARREN ESTAZIÑO.

Irugarren aldian Jesus iausi zan lekua

Pensadu egizu, Kristiñaba, zelan aldatsaen igoeran indarrak saltadu, ta Jesus maitea irugarren aldian iausi, ta bere arpegi ederra autsez bete





eban: iaigi gura eban: baia ezin: eta arerio gogorak ostikoka, tiraka, ta deadarrez: ea iaigi laster: Kurutzean il bear dau: an ilik ikusi gura dogu, esaten eutsen.

ORAZIÑO

O neure Jesus, zeruko Maisu amorosoa! O zelan zeure Kurutzea, ta lurreko nekeak amore onegaz eroatera animetan gaituzun! Ai Jauna! Neure kulpak dira, Zu bulzaka, ta golpeka lurrean irugarren aldiz erabili zaituezanak! Arren iguzu grazia, orreen penitentzia egin, ta Kurutzeen penak geure pekatuen saria legez artu daiguzan: zeure odolaz, ta amoreaz gozatu, ta orreen sari zeruko ditxea betiko aurkidu daigun. Amen.

AMARGARREN ESTAZIÑO.

Jesu Kristori soñekoak kendu eutsezan lekua

Pensadu egizu, Kristiñaba, zelan borrero odolzale aek, lastimarik бага Jainkoen Semea, bere soñekoak lotsari andian kendu, ta tratu gestoak arri baten iarrerazo, ta beztunaz nastaduriko ardaoa edaten emon eutsen. O zelan burlaz, ta deungaro esanakaz emen desonradu eben!

ORAZIÑO

O neure Jesus pazienza miragarrien Ispillua! Ze atsakaba, ta angustiak zeure biotzak artuko zituan, munduen begietan zeure soñekoak kendu, llaga sagraduak barriaztu, ta lotsari gorrian, beztuna edaten emon eusuenean! Arren, Jauna, iguzu indarra, pekatu, ta pasiñoen soñeko zarra kendu, ta zeure amorezko soñeko barrira ianziteko: eta emeko atsegín falso beztunez beteak itxi, eta egiazko zeure atsegínak aurkietako. Amen.

AMAEKAGARREN ESTAZIÑO.

Jainkoen Semea Kurutzean iosi eben lekua

Pensadu egizu, Kristiñaba, ze- lan Jesus Bildots mansoa añ isil, geure pekatuakgaiti sakrifikadu bear zana, Kurutzen ganean ezarri, ta

tiraka zanak urratuaz untze gogorraz iosi eben, eta orrek errematxetako, Jaun dibinoen ganean iarri, ta golpe bakotxean, Ama santisimen Biotz amorosoa, Semen Gorputzagaz batera urratuten eben.

ORAZIÑO

O neure Jesus, pekatuak kentzen dituzun Bildots inozentea! Ai! ta ze amodiozko Karobi bizia zeure Biotza orduan egongo zan! Bada añ umill, ta pozik zeure esku sagradu, ta oñak Kurutzean iosteko emon zenduzan! Zeure amodio, ta pazienza onegaiti iguzu, Jauna, grazia, geure esku, ta oñak, pekatuen kateak urratu, ta zeure bildur, ta amodiozko untzez iosi, ta zeure Biotzean beti bizi gaitean. Amen.

AMABIGARREN ESTAZIÑO.

Jesus geure Bizitza Kurutzean iaso, ta il zan lekua


Pensa egizu, Kristiñaba, zelan Jainko, ta Gizon egiazko geure Jesus Kurutzean iosi, ta iaso eben, ta Kurutzea asentetako, bere zanak eten, ta zatitu, ta Mendi santu atan gere Salbadorea airean agertu zan: Begira, lapur bien erdian, ze tormentu, ta burlen artean il zan.

ORAZIÑO

O neure Jesus, Ama Birjinen frutu bedeinkatua, ta ordu onetan geure pekatuakgaiti, madarikatua legez, gure salbaziñoeko frutu gozo egin, ta Arbola santuan egon zineana! Geure parkaziñoeko eguna au da: eta ori zeure tormentuak, llagak, eta penak: ori zeure Biotzeko negar, ta deadarrak Aita Eternoari eskatuten deutse. Alan izan bedi, Jauna, eta egiazko penitentzian geure pekatuak desegin, ta zeugan il, ta betiko zeugaz bizi gaitean. Amen.

AMAIRUGARREN ESTAZIÑO.

Gorputz santua eretsi, ta Ama Birjineari emon eutsen lekua





Pensa egizu, Kristiñaba, zelan geure Jaunen doloreak eriotzeagaz akabatu, ta Ama maiteaenak dirauen. Gorputz ilara lanzadaz idegi, ta Amaen Arimea iosi eben: eta Josef, ta Nikodemus santuak Kurutzeti eretsi, ta Amari presentatu eutsen. Ze penak, ze negarrak Ama dolorosa onenak!

ORAZIÑO

O neure Ama maite pena, ta angustiazko Itxaso ondobagea! Nok esan daike, zeure Ariman zer igaroko zan zeure biotzeko Semea ilik besotetan artu zenduanean! Aen Buru, esku, ta oñak, eta bere Biotza idigirik ikusi, ta ze tormentu, ta doloreak artuko zinduezan! Arren, bada, geure Amarik maiteena, orregaiti egiazko lastima andi bat iguzu, pekatuen damuz orreenzat betiko il, ta zeugaz zeruan bizi gaitean. Amen.

AMALAUARREN ESTAZIÑO.

Obiune barrian Jesusen Gorputza sartu eben lekua

Pensa egizu, Kristiñaba, Dolorezko Amaen besoetati nekez Gorputz santua Josef, ta Nikodemusek artu, ta izara barri eder baten, egiazko Kristo garbiro unjidu, ta arrizko sepultura, edo obiune barrian deboziño andiaz zelan sartu eben. Pausu onetan, ai Ama Birjinen ze dolore, ta negarminak!

ORAZIÑO

O Martini guztien Erregiña, Angustien Pausu onetan, Jesus zeure amorezko, ta dolorezko Lorapillo, edo Ramillete bat egin, ta zeure Biotzen erdian beti gorde zenduana! Parebagako zeure Martirio onegaiti, arren zeure eskua iguzu, ta ditxarik andiena, zeñ dan Soledade triste onetan zeuri lagun egitea, geure kulpen penitenziagaz lurreko gauzak itxi, ta zeure Seme Jesus, eta zeu beti amaetako zeruan. Amen.

ESTAZIÑOETAKO PAUSU BAKOTXEKO KANTA, EDO KOPLAK

Euskaritxu, edo Etribillua

Gura bozu idigi
Zeruko Atea:
Kurutzte santua da
ango Giltzea.

Zerurako bidea
gura dozu ikasi:
Kristoen Pausoai
iarraitu beti.

Lenengo Estaziñoan

Sentenziadu dabe
Jesus maitea
Kurutztean iltera:
O ze penea!

Bigarreanean


Orain artzen ditu
Kurutzte batean
geure pekatuak
bere ganean.

Irugarreanean

Emen iausi zan
Jesus lurrera
lurra iasoteko
bere aurrera.

Laugarreanean

Nok esan leike
Amaen peneak:
onelan ikusi ta
bere semea!



Bostgarrenean

Kurutzea eroaten
nai dozu lagundu:
bada emen nai dabe
lagun bat artu.

Seigarrenean

Arpegiko izerdi
eta odoletan,
zapi bat busti dau
iru dobletan.

Zazpigarrenean

Bigarren aldian
emen da iausi:
eta zu etzara
kontura etorri.

Zortzigarrenean

Pekatuagaiti
negar egizu:
bada neure penak
orrek emon ditu.

Bederatzigarrenean

O Pekatuaren
gauza astuna!
Irugarrenean
io dau emen lurra.

Amargarrenean

Ona nun daukazun
Jesus billotsik
buruti beatzera
zauriz beterik.

Amaekagarrenean

Oñak, eta eskuak
untzez iosirik

emen dago Kristo
penaz beterik.

Amabigarrenean.


Emen Jesus il zan
gizonagaiti:
akordadu zaite
orain, ta beti.

Amairugarrenean

Kurutze ganeti
bere Ama gana:
emen eresten da
Jesus laztana.

Amalaugarrenean

Obi barri bat nai dau
zure biotzean
Jesus ilak: betiko
zu bizi zaitean.





AMA BIRJINA DOLOREETAKOEN DEBOZIÑO, TA BEDERATZIURRENA

Ama Santisimaen Misterio, edo Pausu guztiakaz geure Erri oneetan dan amodio andia, Jainkoa alabaetako gauzea da. Baia Ama Birjinen Doloreakazko emen oi dan erreberenzia, txito señaladua da, ta guztien biotzetan txikitarik sortu, ta beti azi da: eta errazoe andiagaz. Bada ume-rik, erregaladuenak Amarik gozoenari zor deutesen zorioneko lege, ta deboziñoen marka agiria au da. Alan geure jente piadosoak esaten deutse: *Doloreetako Ama Birjinea, Piedadeko Ama, Angustietako Ama, ta Soledadeko Ama santisimea*: eta Izen eder onekaz, Ama Birjinen Imajina milagrosoak, ta txito deboziño andikoak leku askotan beneretan dira.

Pausu deboto orrek, eta beste orrelangoak Ama Birjinen Doloreetan sartuten, edo adietan dira. Onen ganean Aita Franzisko Garciak luzaro, ta ederto eskribidu eban: eta Santuetarik onek dakarrena bera Doloreetako Ama santisimen deboziñoa emaiteko sobra da. An dakar, Ama Birjinen Angustia, ta Soledadeko pena guztiak zelan Jesus bere Semeen Pasiñoako Pausu, ta Kurutzeko eriotzan zimendadu, edo fundadu zirean. An diño, orreek zeinbat, zelangoak, ta ze gogorrek izan zirean. An dakar S. Alberto Andien dotrina, zein dan Jesu Kristoren Pasio santuko penak gogora ekarri, eta deboziñoz orreetan pensatzeak Kristiñau onari probetxu gei-ago egiten deutsal, «ur, ta ogi urte ose baten barau egingo baleu baño, eta azotez bere burua odol asko emon artegiño urratuko baleu baño». Gauza jakina da Semeen tormentuak Amaen Doloreakaz batera ondo meditaeteak berez, ta bere debotoenzat zelan bere baita suabidade gozoagoa dakarrela. Bien tormentuak, eta penak minak, eta garratzak izan zirean; baia orreen konsideraziñoa bien debotoenzat txito gozoa, ta probetxusua da. Orregaiti Nobena asi baño len, Ama Birjinen zazpi Doloreak iru modutara, laburtxo bada ere, esan bear ditugu. Aita Garciak era ontan dakarz.

Lenengo Dolorea. Ama Birjineak bere Semea Jerusalemgo Tenpluan presentadu ebanean, eta Simon santuak Sein Dibinoa besoetan artu, ta Espiritu Santuen argiz esan eutsanean Amari: bere Arimea doloretzko ezpateak iosi, ta igaroko eutsal: edo Jesusen Pasiño, ta Eriotzan Amak eroan bearko zituan penak.

Bigarrena. Angeruak San Joseferi agindu eutsanean, Jesus iaio berria, ta bere Ama artu, ta Ejiptora iges egin legiala; zerren Horodesek Señari bizitzea kendu gura eutsan. Barri triste onegaz Ama maiteak bere biotzean ze penea artuko eban!

Irugarrena. Jesus amabi urtekoa zala, bere Amak, eta S. Josek Jerusalemgo Tenplura eroan, ta galdu ebanean. Ze atsakaba, ta penak Ama santisimea bere Semeen billa ibili zanean, ta bere ondasun guztia Tenpluan, irugarren egunean, arkitu eban artean.

Laugarrena. Bariku santu egunean Jerusalemgo kalean Amak topadu ebanean bere Seme Dibinoa Kurutze astuna, bere ganean eroeala, an iosirik tormentuz ilteko. Ama Semeak alkar ikusi, ta begietati biotzetara, ze dolore, ta pena gogorrek bietan sartuko zirean!

Bostgarrena. Kalbarioko Mendian Ama santisimeak bere biotzeko Seme bakarra Gurutzean ultze gogorrekaz iosirik, ta penazko lotsari andian gora iasorik ikusi ebanean: andi zazpi berba Dibinoak enzun, eta Aitari bere espiritua emon, ta ilik ikusi ebanean.

Seigarrena: Josek, ta Nikodemusek Gorputz santua Kurutzeti eretsi, eta Amaen besoetan itxi eutsanean: bere Seme inozentea arerio odolgiroak zelan ipini eben astiro begira iarri zanean. Ze penazko itxaso ondo bagea Amaen Biotza orduan egongo zan.

Zazpigarrena: Gizon santu biok bere Semea besoetati artu, eta Obi, edo sepultura barri baten deboziño guztiaz sartu ebanean: eta Ama doloroso guztizko bakartasun, edo Soledade tristetean negarrez gelditu zanean. Onen ariman orduan zer irago zan, nok esan daike?

Zazpi Dolore iakinak onek dira. Baia zelan Aita Santuak gure Españaarako bere Buldan diñoan, Ama Birjineak Semeen Pasiñoan irago zituan zazpi Doloreak Festa barrian beneretan direala, Aita Garciak berak urrengo zazpiak kontetan ditu modu onetan.

Lenengoa: Eguen guren gabeen Jesus amoroso bere Pasiño, ta Eriotzarako prestadu, ta bere Ama maiteganik despeidu zanean, onen Biotz maitetsuak artu eban dolore esan al baño andiagoo. O zelan bere Semeagaz laztanka doloretz, ta negarrez urtuko zan!

Bigarrena: Jesus bere Semea abe bati lotu, ta azote gogorrekaz urratuten ikusi ebanean, eta guztien aurrean alango lotsari, ta pena andian; eta Ama maitea (berak Santa Brijdari esan eutsan legez) begira egoala. Ai ze tormentu, ta atsakabak onen Biotzekoak!

Irugarrena: Azoteen urrengo aranzazko koroea, burlazko Erregeari legez arerioak Jesus onari buruan iosi eutsanean. Amak bekian, zelan bere



Semea Errege guztien egiazko Errege zan. Tormentu, ta burla atun orren artean nok pisau daike Amaen penea?

Laugarrena: Jerusalemgo kalean Ama Santisimeak bere Semea Kuru-tzearen kargeagaz makurturik, ta lurrera iausten zala ikusi ebanean: eta lapur bigaz desonra andian, orren erdian Kurutzean iltera, Jainkoen, ta bere Seme bakarra eroeela.

Bostkarrena: Kalbariora igo, ta bere Seme Dibinoa ikusi ebanean guztien begietan, ta lotsari tristean soñekoak kendu, ta Kurutze ganean egotzi, eta borreruak ultze gogorakaz Jesusen esku, ta oñ sagraduak ios-ten eutsezala. O ze Amaen tormentu andia!

Seigarrena: Kurutzean ilik, ta lanzadaz Jesusen Biotza iosirik Amak bere Semea ikusi, eta Gizon santu biak bere besoetara eretsi eutsenean: eta Jesus ederra alan deseginik ikusi, eta dolarez beterik bere ari begira, amarez, ta penaz egon zanean.

Zazpigarrena: Jose, ta Nikodemus santuak Amari bere Semea, ta konsuelo bakarra kendu, eta Obi, edo sepulturarako prestadu ebanean. Ai ze angustiak! Ze negarrak! Ze Soledade tristea! Eta orrelan geratu zan Ama santisimea bakarra.

Aita Kornelio à Lapide txito iakitun, ta debotoak beste era batera Birjina Amaen Doloreak kontetan ditu: eta zirean guztiak aen Biotza Kurutzen ondoan, zazpi modutan iosi ebela diño onelan.

Lenengoa: Kurutzean ikusten ebana Jesus bere Seme bakarra zan: eta Amak ondo ekianak legez, bere burua, ta bizitzea baño bere geiago estimetan, ta ametan eban. Doloren neurria amodioa da: eta naiagoko eban, al bazuan Amak Pasiñoa guztia igaro, bere Semea alan ikusi baño. O ze Amen Dolorea alango Semeagaiti!

Bigarrena: alango tormentu gogor andietan egoana bere Seme, ta Jainkoen egiazko Semea zan eta onek gorputz guztian bururik oñetara, sentidu, ta parte baktxean, barruti, ta kanpoti dolore, ta penak izan zituan: eta Ama dolorosak guztiak bere biotzean eroan zituan.

Irugarrena: tormentu orretan ikusten ebana, Jaun guztiz andia, gure Erredentore, ta Burua zan: eta gizonik billauena, jentil bat bada bere, ilten ikustek lastima emaiten badau: ze pena Ama maiteana izango zan, Jainkoen Semea azote, aranza, ta penaz ilten ikustea?

Laugarrena: Tormentu orreen iraupena, edo luzeerea: Jesus onak bere bizi guztian Biotzean irago zituan, eta ordu oneetan; Kurutzean il artegiño Gorputzean eroan zituan: eta guztiak Amak bere Biotzean, eta Jesus il ezker bere bai. O ze onen penea Semeari lanzadea emaiten, obian sartutean, ta bere Soledadeko bizitza tristean!

Bostkarrena: Tormentu orretan bere Semeen bakardade, ta desan-parua: bada Apostoluak igesi ebiltzan, edo bakarrik itxi eben: Angeruen, ta Aita Eternoen anparurik ikusten ez eban: bere Ama bakarrari, ta an egozanai begira egoan. O ze tormentu triste gogorra!

Seigarrena: Bere Semeen kontra ainbeste miñ zorrotz madarikatuk esaten zituezan guzur, burla, eskarnio, eta buro, edo blasfemia ikaraga-riak enzuten egoan. O ze atsakaba, ta penea! Dudarik baga tormentu andienetarik bat Ama Birjineak onetan izan eban.


Zazpigarrena: Ordu orretako bere Semearen betiko bistera, edo aren pena ta tormentuak ikusi bearra, eta ari begira egotea. Orregaiti Santuak diño, Ama bere Biotzean Martiria baño geiago zala: bada Semearen gatx, pena, ta tormentu guziak Amaen Arimea beti traspasadu eben.

Eta onek dira onen Debotoenzat iru modura nik aurkitu ditudan zazpi Doloreak, edo Ama Birjinen Biotz maitean ikusten ditugun Zazpi Ezpatak: aenean legez, geure biotzetan betiko iosteko. Doloreen jai bi urtean zelebretan ditugu: eta zazpi Doloreen kontu, ta izenean beste ezin kontadu alako tormentu, pena, ta dolore, eta guztiak esan al baño andia-goak adituten dira.

Orain Ama Santisimeen Nobenea. Onetan, besteetan legez artu bear dira sosiguz, eta era onean bederatzi egun, ta ez errezean, ondo ezpada-toz; ezpada deboziño iñoz egingo direan moduan, ta baktxari ondoen iarorkazan egunetan. Ama Birjineak, eta Santuak ori gura dabe, baktxak bear dabena alkanzetako.

Bederatzi egunetarik baten konfesadu, ta komulgadu bear da: al dagianak limosnaren bat pobrei emon, Libruren bat irakurri, edo enzun, eta egun baktxean orren ganean konsideradu bear da, eta orrelan beste obra onak.

Ama Birjinen aurrean belauniko iarri, ta beti ondo zeñatu, eta Neure Jesu Kristo Jauna, edo kontriziñoako aktua egin, ta gero baktxeko Ora-ziñoak asten dira onelan.



DOLOREETAKO AMA BIRJINEARI BEDERATZIURRENA

EGUN GUZTIETAN ASTEKO ORAZIÑO

O Birjina Maria, Jainkoen Ama miragarria, ta zeure Semearen Pasio, ta Eriotzan dolorez, ta penaz alde guztiti betea! Bardin Jaunen borondatea bada, Nobena onetan gura dodan faborea nik alkanzetea, zeure Dolo-reakgaiti eska egiozu berari; ta ezpabere bera, ta zeu obeto serbietako ondoen iagotan grazia. Amen.

LENENGO EGUNERAKO ORAZIÑO

Neure Ama santisimea, ta Martiri guztien Erregiña. Ze Dolorea zeure Biotzak artuko eban, zeure Seme Jesus Angustietako kalean Kuru-tzeagaz ikusi, ta Kalbariora iarraitu zeuntsanean! Orduan ak bere Gorpuztean, ta zuk Biotzean igaro zenduzan tormentu guztiak Aita Eternoari presenta egiozuz, neure pekatuen damuzko penitentzia eginaz, zeuen amodiora biurtu nadin: eta Nobena onetan eskatuten dodan faborea, Jau-naen gloriarako, ta neure salbaziñorako baldin bada. Amen.

Emen Ama Birjinen Dolore guztien, ta zazpi iakinen erreberenzian zazpi Abe Maria, ta Gloria Patri esan, ta gero:

EGUN GUZTIETARAKO ORAZIÑO

Munduko Amarik aflijiduen, ta bekatarien Ama bakarra! Or dauka-zu Kurutzean zeure Seme laztana, eta Aita Eternoari eskinietak Sakrifizio, edo Ofrendarik onena; ori da geure kulpen erremedioa, ta zor guztien pagu osoa, ta guztiak baño andiagoa. Eskatu egiozu, bere Seme mai-teari begiratu, ta gure pekatuak barkaetako bigundu dedila: eta bekatari, ta infiel guztiak bere graziara dakarzala.

Emen konfianza guztiaz biotza iaso, ta Ama Birjinen bitartez bako-txak gura daben saborea esketan dau, eta gero:

JESUS KURUZIFIKADUARI ORAZIÑO

Neure Jesus maitea! Bada zeure amodioak Kurutzeti zeure Ama Dolorosen mantupean itxi; ta ditxarik andienaz, bere dolore, ta negarren umeak egin ginduzan. Arren, Jauna, zeure Eriotzeagaiti betiko bizitzea iguzu: eta zeure odolaz, ta aen negarraz garbitu, ta señaladuak legez, gorde gazguz zeure Biotzean orain, ta geure eriotzan. Amen.

BOST LLAGA SAGRADUEN ADORAZIÑO

Neure Ama Doloreetakoa. Zeure Semeak nigaiti artu zituan bost Llagaz preziosoak zure aurrean adoradu gura ditut: eta orrek adoretan zeuk euki zenduan espiritu, ta amodioa beti euki gura neuke.

Ezkerreko Oñeko Llagari.

O neure Jesusen Llagaz preziosoa! Biotz guztiaz adoretan zaitut; eta orregaiti eskatuten deutsut, Jauna, neure pausuz, ta ibilera gestoakaz egin deutsudazan ofensa guztien parkaziñoa. Pater noster, ta Gloria Patri.

Eskumako Oñeko Llagari.

O neure Jesusen Llagaz preziosoa! Biotz guztiaz adoretan zaitut; eta orregaiti esketan deutsut, Jauna, neure berba, ta obra gestoakaz egin deutsudazan ofensa guztien parkaziñoa: Pater noster, ta Gloria.

Ezkerreko Eskuko Llagari.

O neure Jesusen Llagaz preziosoa! Biotz guztiaz adoretan zaitut; eta orregaiti esketan deutsut, Jauna, neure begiz, ta beste sentiduz egin deutsudazan ofensa guztien parkaziñoa. Pater noster, &c.

Eskumako Eskuko Llagari.



O neure Jesusen Llagaz preziosoa! Biotz guztiaz adoretan zaitut; eta orregaiti esketan deutsut, Jauna, neure memoriaz, entendimentuz, ta borondatez egin deutsudazan ofensa guztien parkaziñoa: Pater noster, &c.


Biotz sagraduko Llagari.

O neure Jesusen Llagaz preziosoa! Biotz guztiaz adoretan zaitut; eta orregaiti esketan deutsut, Jauna, nolan zeure Biotza lanza gogorraz iosia izan zan, ta zeure Ama santisimena ezpata zorrotzat; alan neure Arimea zeure Amodioaz betiko iosi dagizula; bada gurago dot il, zeu ofendidu baño. Pater noster, &c.

BOST LLAGAI SAN FRANZISKU XABIER-EK EGUNEAN EGUNEAN EGITEN EUTSEN ORAZIÑO

Neure Biotzeko Jaun, eta Jaungoiko Jesu Kristo. Bost Llagaz Kuru-tzean, ta beste ezin kontadu al zeure Pasiñoan geure amodioak artuerazo eutsuzanakaiti esketan deutsut, zeure odol preziosoaz erredimidu gindu-





zuzanok, arren zeure Ontasunak beti borde, ta zeure gloriara eroan gagi-zula. Amen.

Bigarren egunean zeñatu, Kontrizioko aktuak egin, ta lenengo Oraziñoa, ta beste azkenekoak beti egunean egunean esaten dira. Bigarren Oraziñoa egun bako-txerako da urrengetarik bat.

BIGARREN EGUNEKO ORAZIÑO

Neure Ama santisimea, ta Martiri guztien Erregiña. Ze dolorea zeure Biotzak izango eban, Kurutzeen ondoan zutinik, ta firme zengozala zeure sabeleko frutu bedeinkatua Arbola atan iosirik, ta gure pekatuak-gaiti agoniñan ikusi zenduanean: eta zeure Arimea dolorezko itxaso bat, ta begiak negarrezko iturri bi eginik. Arren zeure piedadez begira egidazu, neure kulpen egiazko penitenziaz, zeure Semearen odol preziosoan neure arimea garbi dedin: baita ere Nobena onetan esketan dodan faborea, bere gloriarako, ta neure salbaziñorako baldin bada. Amen.

Emen zazpi Abe Maria, ta lenengo eguneko beste Oraziñoa.

IRUGARREN EGUNEKO ORAZIÑO

Neure Ama santisimea, eta Martiri guztien Erregiña. Ze dolorea zeure Biotzak izango eban, zeure Semeak San Joan amaduaren kontura Zu itxi, eta aen buruan geure guztien Ama egin zinduzanean, zeure Doloreen umeak gu izateko. Zeure kontura isten ginduzan, o Amarik gozoena! Begiradu eiguzu bada, ta zeure mantupean artu, ta Jaunen borondatea dan legez bizitza santu bat egiten lagun eiguzu: eta Nobena onetan esketan dogun faborea bere gloriarako, ta gure salbaziñorako baldin bada. Amen.

LAUGARREN EGUNEKO ORAZIÑO

Neure Ama santisimea, ta Martiri guztien Erregiña! Ze dolorea zeure Biotzak izango eban zeure Seme Jaunari Judegu, ta Jentil itsuak zeure begietan, alango burla, ezain, ta berba gesto esatean lotsarik baga, Jesusen desonran. O ze tormentua zuk orrek enzutean, ta zeure Semea, Aita Eternoari bere espiritua agindu, ta ilten ikusi zenduanean! Pena guztien gogorren enegaiti arren begiradu eiguzu, kulpa guztien egiazko damuz geure arimeak garbietako, ta Jesus inozentea, ta geure Salbadorea beti alabetako: eta Nobena onetan esketan dogun faborea bere gloriarako, ta geure salbaziñorako baldin bada. Amen.

BOSTKARREN EGUNEKO ORAZIÑO

Neure Ama santisimea, ta Martiri guztien Erregiña. Ze dolorea zeure Biotzak artuko eban, zeure Semea Kurutzean ilik ikusi ezkerro, ta tormentuak igaro zirealakoan, Soldadu batek lanzea iaso, ta Jesusen Biotza idigi, ta zeurea erdiratu ebanean! Orduan Bular sagraduti geure salbaziño Atea idigi, ta odola, ta ur garbia Iturri atarik urteten ikusi zenduan. Tormentu, ta pena onegaiti, arren begiradu eiguzu: eta odol prezioso, ta ur gozo atan geure arimeak garbituten lagun eiguzu, zeruko Ate atatik seguru sartu gaitean: eta Nobena onetan esketan dogun faborea, bere gloriarako, ta geure salbaziñorako baldin bada. Amen.

SEIGARREN EGUNEKO ORAZIÑO


Neure Ama santisimea, ta Martiri guztien Erregiña! Ze dolorea zeure Biotzak artuko eban, Jesus zeure Semeari aranzazko koroea, eta ultze odolez beteak atera eutsezanean. Ai, ta zelango fede, ta amodioaz zeure eskuetan artu, ta adoraduko zenduzan! Orduan irago zenduan pena tristeagaiti, arren begiratu eiguzu, geure begi, ta beste sentiduetan aranza, ta untze orrek biotzetarano iosi dagiguzan; eta kulpa guztien gorroto bizi bategaz orren parkaziñoa izan daigun; eta Nobena onetan esketan dogun faborea, Jaunen gloriarako, ta geure arimen salbaziñorako baldin bada. Amen.


ZAZPIGARREN EGUNEKO ORAZIÑO

Neure Ama santisimea, ta Martiri guztien Erregiña! Ze dolorea zeure Biotzak artuko eban, Seme Dibinoen Gorputza era atan bere Altaririk ederren, ta garbienean, edo zeure beso birjinaletan artu zeuduanean! Zeure Angutlietako Pausu ikusgarria au da. Ai, ta zelan begiratu zeun-tsan Espiritu Santuak zeure sabelean egin eban Gorputz orri! Len guztiz ederra, ta orain tormentuz ezaindua, ta neure kulpakgaiti desegina. Zeure penen artean arren begiradu eiguzu, orren lotsaz, ta damuz bioen piedadea billetan dogunoi: eta Nobena onetan esketan dogun faborea, bioen gloriarako, ta geure salbaziñorako baldin bada. Amen.

ZORTZIGARREN EGUNEKO ORAZIÑO

Neure Ama santisimea, eta Martiri guztien Erregiña! Ze dolorea zeure Biotzak artuko eban, zeure Semearen Burua, eskuak, eta oñak, ta Gorputz guztia ikusten iarri ziñeanean. Aen arpegia zeure negarrakaz gar-bitu, ta unjietako, ta obiunerako meztietako dolorez beterik emon zendu-





zan. Zeure Arimako pena onekgaiti arren begira egiguzu, eta geure pekatuen penitentzia, ta bizitza barri santu bat egiten lagun eiguzu, zeure Semea geure biotz garbietan betiko artu, ta gorde dagigun: eta Nobena onetan eska dogun faborea, bere gloriarako, ta geure salbaziñorako baldin bada. Amen.

BEDERATZIGARREN EGUNeko ORAZIÑO

Neure Ama santisimea, ta Martiri guztien Erregiña. Ze dolorea zeure Biotzak artuko eban, zeure Seme laztana obiunean sartu, ta itxi zenuanean, ta penaz ila legez bakarrik, eta zeure Biotzeko Bizitza bagarik gelditu zineanean! O Angeruak, eta kriptura guztiak, zeuen Erregiñari bere lutu, ta Soledade triste onetan lagun egiozu. Pena onegaiti arren neure kulpen parkaziñoa Jaunaganik alkanza egidazu, eta Nobena onetan esketan dogun faborea gloriarako, ta geure salbaziñorako baldin bada. Amen.

AMA BIRJINARI S. AGUSTINEK EGIN EUTSAN ORAZIÑO

Akorda zaitetz, o Birjina Ama A txito piadosea, iños bere edo sekula enzun eztala, zeure anparura etorri danik, eta bere nekeetan zeuri dei egin deustunik, desanparadua izan dala. Ni bada konfianza onegaz animadurik zugana lasterka biurtuten nas. Birjina guztien Birjina Ama, zuga nator: zeure aurrean negarrez eske nago. Ez arren bada, o Jainkoen Berbo, edo Berba Dibinoen Ama, neure berbai gor egin; ezipada neure onerako orrek enzun ta onez artu egizuz.

Au esketan deustut, Amarik maiteena, zeure Semearen Pasiño, ta Eriotzeagaiti, ta zeure Dolore guztiakgaiti, Jainkoa beti amaetako. Amen.

JESUSEN BIOTZ SAGRADUARI NOBENA

Au ondo egiteko, egun baten al dan deboziñorik andienaz konfessadu, ta komulgadu bear da, urte atako falta guztiak erremedietako, ta Jesusen Biotzari zeurea amodioz osoro emaiteko. Bigarrena: egun oneetan al dagizun guztian Elexara ioan, ta Biotz santisimo ori bere Sakramentuan ikustatu, adoratu, ta lagun egin bear deustazu. Irugarrena: Deboziño au bizierazoteko, Jesusen Biotzeko Libruren bat egun oneetan irakurri, edo enzun bear da: ta beraren izenean, al dan limosnea pobreak emon; eta orrelango beste Nobenetan egiten direan deboziñoaren, señaile, edo obra onak, gura dozuna alkanzaetako.

Lenengo egunean, ta beti Sakramentu Santuaren, edo Jesusen Biotzaren Imajina baten aurrean fede bizi bategaz iarri, ta biotzeko amorioaz adoratu, ta Bederatziurren asiten da: Zeñatu, ta Neure Jesu Kristo jauna, edo Kontriziñoa aktua egin, eta egun guztietan modu onetan esaten da.


ORAZIÑO

O Jesus maitearen Jainkozko Biotza, zeñetan Trinitade santisimoak zeruko grazia, ta doae guztien ondasunak gorde zituan. Iguzu, Jauna, zeurearen antzeko biotz garbi bat, ta Bederatziurren onetan eska deustugun faborea, zeure onrarako, ta gure salbaziñorako baldin bada. Amen.

LENENGO EGUNeko ORAZIÑO

O Jesusen Biotz zeruko Amodioaren Bizitza gozoa, gure biotzerako otzutasun, ta leortasunak zeure Amorioagaz bizierazo gura dozuzana. Arren geure pekatuen epeltasun guztiak eraxegi, ta desegin egizuz, Jauna, geure biotzak zeure amorioan beti bizi ditean. Iguzu grazia zeure Biotzeko amodioari ordea, bear dan legez, biurtuteko; eta Sakramentu orretan egin iakazan injuria, ta ofensa guztiak gure aleginez desagrabietako: eta Bederatziurren onetan eskatuten deustugun faborea, zeure gloriarako, ta geure onerako baldin bada. Amen.

Emen iru Aita gure, iru Abe Maria, ta Gloria Jesusen Biotzeko Kurutze, Aranza, ta Llagá sagraduaren izenean. Gero Aita Eternoari erregututen iako beti modu onetan.





EGUN GUZTIETAKO ORAZIÑO

Aita Eterno gure Jainko guztiz ona. Jesus zure Seme maitea, ta geure Bide, Egia, ta Bizitzea bitarteko artu, ta Zugana gatoz, Jauna. Onan Biotz adoragarriaz Zu ezaguturik gure biotz guztiaz adoretan, ta amaetan zaitugu, oraingino, Zu ezagutu baga, edo euren borondate gestoz adoretan, ta amaetan etzaituen guztiakgaiti. Biotz onezaz guztien zorrak pagadu, ta zeure diñako ordea biurtu gura deutsegu: zeure Semearen odol preziosoz erosiriko arimak onegaz eskeni deutsuguz: eta Biotz onegaiti Zugana direanak erakarri dagizuzala esketan deutsugu. Gure Jesus ona ezagutu baga, ez arren, Jauna, iñor munduan etxi. Guztiakgaiti ill zanarenzat, guztiak bizi bite. Biotz onetan geure Aide, adiskide, ta ongiñ guztiak enkomendetan deutsuguz: eta zure Espiritu Santuaren doez guztiak betetea esketan deutsugu, Biotz amoroso onen anparuan beti lurrean bizi ditean, ta orretan Zu beti alabetan zeruan egon ditean. Amen.

Emen isilik puska baten bakoetak bere biotzean oraziño egiten dau, Jesusen Biotzaganik gura daben faborea alkanzetako: ta bere salbaziñorako konbenien iakana konfianza guztiaz eskatu bear dau. Gero Anima Christi. Au da Oraziño bat Aita San Ignaziok txito usadua, ta bere Ejerzizioetan agindua. Orain, ta Komunioan Jauna artu, ta biotzeti esan egizu beti.

Jesusen Arimea santifikadu nagizu.

Jesusen Biotza erasegi nagizu.

Jesusen Gorputza salbadu nagizu.

Jesusen Odola graziaz bete nagizu.

Jesusen Biotzeko ura garbitu nagizu.

Jesusen Pasiñoa sendatu nagizu.

O Jesus ona: enzun nagizu.

Zure Lлагаen artean gorde nagizu.

Zeuganik urteten utxi ez egidazu.

Arerio gestoetati libradu nagizu.

Neure eriotzako orduan dei egidazu.

Zeugana etortea agindu egidazu.

Santu guztiakaz Zeu alabetako,

Sekula guztietan, beti, ta betiko,

Amen.

Neure Jesus guztiz gozoa! Nik emaiten deusut neure biotza zeure Biotzeko amarezko finezen ordean, ta berezkiro Altarako Sakramentuan egin deusazuzanagaiti.

Pamplonako Obispo Jaunak berrogei eguneko Induljenziak emon ditu, iakulatoria, edo biotzeko afekto au esateagaiti.

Gero Sazerdoteak esaten dau: Aña, &c. edo euskeraz

ORAZIÑO

Jesu Kristo geure Jauna zeure Biotzeko esan al baño andiago direan ondasunak Elexa zeure Esposa maiteari, parebagako amoreaz agertu ta emon deusazuana! Iguzu Jauna grazia, iturririk gozoen oni dariozan doeakgaz gure biotzak aberastuteko, ta Zeugan beti atsedoteko. Amen.

AMA BIRJINEAREN BIOTZARI ORAZIÑO

Jaungoiko guztiz piadosoa, pekatarien salbaziñorako, ta triseen anparurako Ama Birjina Maria gozoaren Biotz garbia Jesus zeure Semearen Jainkozko Biotzaren antz ain andikoa bere maitetasun, ta piedadean egin zenduana. Iguzu arren, Jauna, Biotzik gozoen, ta maiteen onezaz akordetan gareanak, Jesusen Biotzaren antzekoak beti izateko grazia. Amen.

Bigarren egunean, ta besteetan Oraziño onek esaten dira; ezpada bigarren, O Jesusen Biotz asten dana, zeñ egun bakoitzean urrengotarik bat esaten dan.


BIGARREN EGUNEKO ORAZIÑO

Jesusen Biotz guztiz maitagarria, ta zeruko Atea, zeñetati goaz gu Jainkoagana, ta bera dator gugana. Arren ontzat artu gizu, gure biotzeko zizpuruenzat Ate au beti idigirik eukitea Zeuganik zeure Aitagana sartu, ta zeu obeto serbietako, aen bendiziño ugariak artu dagiguzan. * *Iguzu grazia* zeure Biotzeko amodioari orde z biurtuteko, ta Sakramentu orretan egin iakazan ofensa guztiak geure aleginez desagrabietako: eta Bedera-tziurren onetan eska deusugun faborea, zeure gloriarako, ta geure onerako baldin bada. Amen.

*Egun guztietako Oraziño au, edo beste orrelang bakoxta era onetan * izar-txorik asi, ta akabetan da beti.*

IRUGARREN EGUNEKO ORAZIÑO

O Jesusen Biotz guztiz santua, Gloriarako Bidea, eta ango ur bizia- ren Iturri ederra! Arren iguzu grazia zeruko Bide zuzen oni beti iarrai gakiozan, ta egiazko birtute, ta deboziñoaren ur gozoa Zuganik edan, ta lurreko gauzen egarria ill dagigun betiko. * *Iguzu grazia, &c.*

**LAUGARREN EGUNeko ORAZIÑO**

O Jesusen Biotz guztiz garbia, ta kristalezko Ispillu bizia, zeñetan txito eder santidade, ta perfeziño guztia agertuten dan! Arren iguzu geure biotzetako argia bear dan legez Zeu ikusi, eta geure erregu, obra, gogo, ta berba guztiak zeure antzera egiten ikasteko. * *Iguzu grazia, &c*

BOSTKARREN EGUNeko ORAZIÑO

O Jesusen Biotz guztiz eztizkoa, ta Trinidad santisimoaren Organu ederra, zeñek geure obra pobreak, ta berez ezerez direanak, balioso, ta meritu andikoak egiten dituan. Zeure kontura artu egizuz, Jauna, geure biotzeko aleginak, ta borondate guztia; Zuk geure utsak beterik ondo eginak, eta zeure eretxi onekoak izan ditean. * *Iguzu grazia, &c*

SEIGARREN EGUNeko ORAZIÑO

O Jesusen Biotz guztiz zabala, ta Jainkoaren Tenplu bakarra, zeñetan geure arimak euren alegin, ta sentiduakaz bizi diteala aginduten dozun! Eskerrik asko deutsugu, Jauna, Etxe eder onetan arkituten dogun ditxa, ta atsegina gaiti: or beti Zeugaz bizi gura dogu. * *Iguzu grazia. &c*

ZAZPIGARREN EGUNeko ORAZIÑO


O Jesusen Biotz guztiz biguna, ta Jainkoaren Bake lekua! zeñegaiti Aita Eternoak geure erreguak beti enzungo zitala esanik daukan, diñoanean: Jesus neure Semearen Biotzagaiti entzungo zaitut, eta eskatuten dozun guztia emongo deutsut: Zeuk dakizu, Jauna, obeto guk zer eskatu bear dogun, ta zer frutu Biotz onetarik atara bear dogun. * *Iguzu grazia, &c*

ZORTZIGARREN EGUNeko ORAZIÑO

O Jesusen Biotz guztiz ederra, ta su gar argizko Tronu Dibinoa, gure Biotzak zeure amodioan erreteko beti eraxegia. Jainkozko su gar bizi orreetan eraxegirik gura dogu beti bizi, ta mundu guztiak Zu ezagututea, eta guztien arimak zeure amodioan erretea. * *Iguzu grazia, &c*

BEDERATZIGARREN EGUNeko ORAZIÑO

O Jesusen Biotz guztiz dolorez betea, Itxaso ondobagakoa, eta pena andiz ingiratua! Zeure Biotzeko Kurutze, Arantza, ta Llagegaz zeure amodiozko dolore guztiak erakutsi zenduzana! Arren, Jauna, gugaiti eroan zenduzan penai begiratu, ta geure biotz leorrak Itxaso orretan bigundu egizuz, guk bere pena orreetan zeuri lagun egiteko. * *Iguzu grazia, &c*





AITA SAN JOSEREN BEDERATZIURRENA

Beste Deboziñoetan legez onetan bere egun oneetako abisu, ta erregelak jakiñiak dira: zeñatu, Aktu kontriziñoak egin, eta gero.

EGUN GUZTIETAN ASITEKO ORAZIÑO

Aita San Josef Patriarka gloriosoa, Jesus maitearen Aita ustekoa, eta Ama Birjinearen egiazko Esposo ditxosoa; alan bizitzan, nolan eriotzan zeure Debotoen Bitarteko poderosoa. Baldin Jesus Dibinoaren, Ama Birjinearen, ta zeure ondrarako bada, Nobena onetan guk esketan doguna; alkanzadu eigizu grazia au, ta ezpabere Jaunari eskatu egiozu ondoen iagokuna, bere gloriarako, zeure ondrarako, ta geure salbaziñorako Amen.

LENENGO EGUNEKO ORAZIÑO

Neure Jesus, Angeru guztien Jauna, zeñtzuei, gu bizi garean artean ondo gobernetea agindu deutsezun. Geure guardako Ongin onen merezimentuak ofrezietan deutsudaz, eta zeure Aita usteko San Josepe Gloriosoarenak, zeñ zeure Ama maitearen, ta zeure Angeru goardako legez egin zenduan. Angeru lagun Jose santuaren garbitasun miragarriagaiti geure arimetako garbitasuna arren iguzu, Jauna: eta Nobena onetan eska dogun faborea, zeure gloriarako, Santuaren ondrarako, ta geure salbaziñorako baldin bada. Amen.

Emen iru Pater noster, Abe Maria, ta Gloria Trinitate guztiz Santuaren, Jesus, Maria, ta, Joseren erreberenzian esan, ta gero:

EGUN GUZTIETAN ESATEN DAN ORAZIÑO

Aita San Josef gloriosoa, Ama Birjinearen Esposo parebagea, Jainkoen Semearen Aita ordeko, ta Familia sagraduen Burua, ta Agintari bakarra. Zeure pribilejio onetan neure atsiginik andiena artzen dot; zerren Jainkoak bere etxe, edo Zeru bizi atako Jabe, edo Prinzipe egin zinduzan; eta bere lekuan, Aita baziña legez, bere Seme bakarra, ta aen Ama maitea zeure kontura itxi, ta zeure neke, ta izerdiakaz bien ianaria irabazteko zorioneko kargua emon utsun. O Santu guztietari ditxosoena! Milla esker Jesus, ta bere Amari zuri egin utsuezan faboreakaiti: eta Jainkoa Señtxo gozo eginik zeure besoetan artu, ta askotan emon zeuntsazan biotzeko laztan amoro-soakgaiti: Orregaiti bada, neure Aitarik onena, zeure Jesus, ta, bere Ama-

ganik, arren alkanza egidazu neure pekatuen parkaziñoa, ta Jaunaren borondatea beti eginaz bakezko bizitza santu bat; ta Zu neure Bitarteko poderosoa neugaz zareala, zeure besoetan, Ama Birjinearen anparuan, ta Jesusen Biotzean, eriotzan neure arimea emaiteko grazia: eta Nobena onetan esketan deutsugun faborea, gere salbaziñorako baldin bada. Amen.

Emen fede bizi, ta esperanza osoagaz bakotxak bere biotzean, gura daben mesedea Aita S. Joseri; ta Ama Semeai eskatuten deutse. Gero Santuari Elexeak egiten deutsan Oraziño au esaten da.

Aña: Jesusen Ama Maria Jose santuagaz desposadurik egoala, Aita Eternoaren Semea, Espiritu Santuaren graziaz bere sabelean ebalatu aurkitu zan.

V. Jainkoak Jose Santua egin eban bere Etxeko Jaun andi.

R. Baita bere Ondasun guztien Jabe, ta Agintari.

ORAZIÑO

O Jesus, gere Jainko gugatik Gizon egina, ta zeure Aita Eternoak Jose Santuaren kontura emon zinduzana. Zeure Ama santisimearen Esposo onen amore, ta erreberenziagaiti, guk merezi ez doguna, arren iguzu, Jauna: bere, ta zeure Amaren anparuan, zeure grazian beti bizi gaitan. Amen.


Modu onetan Nobena au egiten da; ezpada bigarren Oraziñoa, zeñ dan egun bakotxean urrengoetatik bat.

BIGARREN EGUNEKO ORAZIÑO

Neure Jesus, Arkanjel guztien Jauna, zeñtzuei zeure gloriarako, ta geure salbaziñorako direan egitekorik andienak zuzenetea agindu deustezun. Espiritu eragilla onen merezimentuak ofrezietan deutsudaz, eta zeure Aita usteko San Josef gloriosoarenak, zeñeri Arkanjel estimaduari legez Aita Eternoak bere gloriarako, ta geure onerako, munduan sekula izan dan, ta izango dan, egitekorik andiena, edo Zeu Jainkoaren Semea Gizon eginik iaio zineaneti bere kontura artutea fiadu eutsan. San Josef maite bakarrari onetan egin zeuntsan onra andiagaiti, arren indazu Jauna zeure Lege santuko neure obligaziño guztiak, Zeuk gura dozun legez, kunplietako grazia, eta Bederatziurren onetan eska deutsugun faborea, zeure gloriarako, ta geure salbaziñorako baldin bada. Amen.

IRUGARREN EGUNEKO ORAZIÑO

Neure Jesus Angeru Prinzipaduen Jauna, zeñtzuei beste Angeruakaz batera, geure salbaziñoaren kontu eukitea agindu zeuntsen. Geure arimen



zeloz beteriko Espiritu oneen merezimentuak ofrezietan deusudaz, eta zeure Aita usteko San Josef gloriosoarenak, zeñek guztien salbaziñorako bestek baño geiago egin eban, Zeu Seintxo Dibinoa bere kontura artu, ta azi zinduzanean. Josef santuaren amodioagaitik, arren indazu, Jauna, neure, ta beste guztien salbaziñoaren egarri andi bat, Zeu neure biotzean beti euki, eta nik, eta mundu guztiak Zeu beti amaetako grazia: eta Bederatziurren onetan eska deusugun faborea, zeure gloriarako, ta geure salbaziñorako baldin bada. Amen.

LAUGARREN EGUNEKO ORAZIÑO

Neure Jesus Angeru Potestadeen Jauna, zeñtzuei demoniñoak sujetadu, ta lotuteko esku, ta indar txito andia emon zeuntseen. Espiritu poderoso oneen merezimentuak ofrezietan deusudaz, eta zeure Aita usteko San Josef gloriosoarenak, zeñi infernuko guztien ganean zeure esku, ta birtute dibinoa emon zeutsan, zeure Etxe, ta familia sagradua ezetan bere inkietadu ez egian. Aita S. Joserren bidez, ta eskuti arren indazu Jauna zeure grazia, ta indarra deabruen tentaziño guztien kontra eskergaro peleetako neure bizitzan, ta arabere geiago eriotzako orduan eta neure San Josef maitea alboan dodala, bere eskuetan neure arimea emoteko: eta Bedaratziurren onetan eska deusugun faborea, zeure gloriarako, ta geure salbaziñorako baldin bada. Amen.

BOSTKARREN EGUNEKO ORAZIÑO

Neure Jesus Angeru Birtuteen Jauna, zeñtzuei milagrorik andienak, ta mirarizko gauzak munduan egiteko birtutea emon zeuntsen. Espiritu miragilla onen merezimentuak ofrezietan deusudaz, eta zeure Aita usteko San Josef gloriosoarenak, zeñi milagrorik andienak egiteko kriptura guztiak obedezieta eutseen, ikusirik Zeu guztien Egilla, ta Jabea Joserren obedienciañ añ pozik zengozala. Mirarizko zeure umildade onegaiti indazu Jauna grazia, zeure borondate santuari neurea gauza guztietan amodioz sujetetako orrelan Zeu neure arima zeure milagrozko graziarik andienak egiteko, zeure miseriakordiaz prestadu nadin: eta Bederatziurren onetan eska deusugun faborea, zeure gloriarako, ta geure salbaziñorako baldin bada.

SEIGARREN EGUNEKO ORAZIÑO

Neure Jesus, Angeru Dominaziñoen Jauna, zeñtzuei beeragoko beste Angeruai aginduteko poderioa emon zeuntseen, eurak Zeugazko umildade andian beti dagozala. Espiritu guztiz altu oneen merezimentuak

ofrezietan deusudaz, eta zeure Aita usteko S. Josef gloriosoarenak, zeñ zeure familia sagraduaren Buru, ta Agintari zala onrarik andien onetan, guztietarik umildeena izan zan. Jose santuaren ditxa parebagako onegaiti indazu, Jauna, Zeu gura dozun egiazko umildadea, Zeu, ta zeure Arna maitea legez, ni bere ditxa andiz, zeure Lege santeari osoro sujetetako: eta Bederatziurren onetan eska deusugun faborea zeure gloriarako, ta geure salbaziñorako baldin bada. Amen.

ZAZPIGARREN EGUNEKO ORAZIÑO


Neure Jesus Angeru Tronoen Jauna, zeñtzuetan, zeure Majestadearen Leku, edo Tronoan legez iarri, ta zeure Anditasunak atsedoten daben. Zorioneko Espiritu oneen merezimentuak ofrezietan deusudaz, eta zeure Aita usteko San Jose gloriosoarenak, zeñak bere beso garbietan zeure Majestade andia Seintxo gozo eginik artu, ta zeu atsedon, ta biok atsegirik andienak euki zenduzan. Zeuben bioen arteko pozkeria zeruko orreekgaiti indazu Jauna grazia neure biotza umildade, ta amodio garbiz betea eukiteko, ta Zeu, neure atsegirik bakarra, bere iarlekuan legez neugan beti egoteko, eta Bederatziurren onetan eska deusugun faborea, zeure gloriarako, ta geure salbaziñorako baldin bada. Amen.


ZORTZIGARREN EGUNEKO ORAZIÑO

Neure Jesus Kerubin Angeru iakitunen Jauna, zeñtzuk zeure finbagako iakituriñ añ ugariro bete izan zenduzan. Zeure argitasun ederrez apainduriko Espiritu oneen merezimentuak ofrezietan deusudaz, eta zeure Aita usteko San Jose gloriosoarenak, zeñi Zeu ondo gobernetako, zeure Etxeko Jaunari legez: Misterio Dibinoen errebelaziño, ta bear zituan zeruko argiak emon zeuntsazan. Zeure Aita maite onegaiti indazu Jauna, santuen iakitura, edo zeure bildurra, ta amodioa, zeure borondate neure biotzaren erdian beti euki, ta ondo gordeetako: eta Bederatziurren onetan eska deusugun faborea, zeure gloriarako, ta geure salbaziñorako baldin bada. Amen.

BEDERATZIGARREN EGUNEKO ORAZIÑO

Neure Jesus, Serafin, edo amodiozko Angeruen Jauna, zeñtzuei zeure Ontasunak amodiozko su, ta garrak, Zeu amaetako emon eutsezan. Espiritu eraxegi, edo abrasadu oneen merezimentuak ofrezietan deusudaz, eta zeure Aita usteko San Jose gloriosoarenak, zeñ Serafin guztiak baño zoriobakoa legez, Zeu ikusi, adoradu, ta laztan gozoen artean bere besoetan artu, ta zeure amodiorik gozoenean urtuten zan. Bioen arteko





amodio dibino onegaiti indazu, Jauna, Zeu neure amodiozko Jaungoiko laztan bakarra biotz guztiti, ta gauza guztien ganean, bizitzan, eriotzan, ta beti amaetako grazia: eta Bederatziurren onetan eska deutsugun faborea, zeure gloriarako, ta geure salbaziñorako baldin bada. Amen.

FAMILIA SAGRADUAREN DEBOZIÑO



JESUS, MARIA, TA JOSEF, JOAKIN, TA ANA


Familia sagraduan lurrean izan zirean, ta orain zeruan direan bost Persona ditzoxoenak dira. Onei deboziño andi bat beti euki bear deutsezu, askotan dei egin, ta egunean egunean, gura bota, esan egiezu fedez, ta biotzeti Oraziño au.

ORAZIÑO

Geure Jaungoiko guztiz ona, zeure Semea gugaiti Gizon egiteko, ta lurrean agertuteko, Ama Birjinearen Esposo, ta Gurasotzat, Josef, Joakin, ta Ana, munduko guztien artean eskojidu, ta zeure bendiziñoz bete zenduzana. Jesus, Maria, ta Josef, Joakin, ta Ana, zeure atsegin andieneko bost Persona sagradu oneen egiazko deboziño, ta amodioa iguzu: eta geure kulpakgaiti merezietan ez doguna, orreen bitartez, ta amarez, zeuk Aita, zeure Seme, ta Espiritu Santuagaz emon egiguzu, Zeu, gere Jauna emen beti amaetako, eta aekaz batera zeruan alabetako. Amen.

Gero esan bost Abe Maria egun guztietan.





AITA SAN IGNAZIOREN BEDERATZIURRENA

Deboziño au ondo egiteko abisuak, eta prestetako modua Jesusen Biotzeko Nobenan arkituko dituzuz.

Santuaren Altara aurrean iarri, edo fede bizi batez, Santua, entzun zagizan, zeure aurrean kon sideradu, ta zeñatu, kontriziñozko aktua biotzetik egin, ta gero esan:

EGUN GUZTIETAKO ORAZIÑO A

Aita San Ignazio glorioso, Jesusen Konpañiaren Fundadorea, ta neure Aita maitea: baldin Jaunaren gloriarako, ta neure onerako bada, nik alkanzetea Bederatziurren onetan eskatuten dodan grazia, beraganik alkanza egidazu, ta ezpabere neure eskari au zuzendu egizu, ta neure pensamentu, berba, ta obrak izan bitez zeure deseo guztira, zeñ Jainkoaren gloriarik andiena beti izan zan. Amen.

LENENGO EGUN EKO ORAZIÑO A

Neure Jesus ona, zeure Fedeko Misterio Sagraduak errebeladu zenduzana, eta obra on guztien, ta salbaziñoaren zeruko sustraia legez geure biotzetan iosirik gura dozuna. Nik ofrezietan deusut Aita San Ignazioren Fede argi bizia, zeñaz, Libru santu guztiak galduko bazirean bere, zeure Misterio guztiak Santuok sinistuko zituan, ta mundu guztiari zeure Fede, ta Legea irakatsi gura eutsan. Arren indazu grazia, zeure Legeko gauzak ondo iakin ta sinisetako, ta obeto gordeetako: eta Bederatziurren onetan eska deusudan faborea, zeure gloriarako, ta neure onerako baldin bada. Amen.

Emen iru Pater noster, Abe Maria, ta Gloria, Trinitade Santisimoari Aita San Ignaziok eutsan amoreagaiti, esan, ta gero:

EGUN GUZTIETAKO ORAZIÑO A

Aita San Ignazio, Santu andia, Jesus zeruko Erregeak bere Konpañiaren Kapitan egin zinduzana, eta kargu glorioso onek eska dituan Angeru guztien birtutez apaindu zinduzana. Atsegin andia dot, neure Santu maitea, zure arimako birtute, esan al baño andiagoen edertasun,, ta gloriaz, ta deseetan dot, mundu guztiak zu ondo ezagutu, ta amaetea. Arren alkanza egidazu Jaunaganik zeure birtuteai iraraituteko, ta Jainkoaren Legea, zeuk legez neure estaduan ondo gordeetako grazia: zu Bitarteko zaitudala, Ama Birjinearen anparuan, ta Jesus Biotzean, berak gura dabenean eriotza on bat logretako: eta Bederatziurren onetan eska deusudan faborea, Jainkoaren gloriarako, ta nere salbaziñoarako baldin bada. Amen.



Emen fede bizi, ta konfianza al dozun andienaz Santuari eskatu egiozu, gura dozun mesede, edo grazia: eta gero


EGUN GUZTIETAKO SANTUAREN ORAZIÑO A

Neure Jaungoiko guztiz miseri kordioso, ta emallea. Bada ni nasan, ta nik dodan guztia, Zuganik artu dot: al bait esker onekoa izan gura dot: eta Aita San Ignaziok bere biotzean, ta aoan beti eukan ofrenda onegaz, Zeuk emon deustazun guztia biurtu, ta Zeuri konsagradu gura deusut. Artu egizu, bada, Jauna, neure libertade, neure memoria, entendimentu, ta borondatea. Nik dodan, ta ni nasan guztia, Zeuganik artu dot: guztia, neure Jauna, Zeure borondateari biurtuten, ta aginduten deusat, orrek gauza guztietan zuzendu, ta gobernadu nagian. Zeure betiko amodioa zeure graziagaz indazu, Jauna: eta onegaz bakarrik txito aberats, eta kontentu nago, ta besteren bearrik ez dot:

Oraziño au Aita San Inaziok egin oi eban, ta besteai eragiten eutsen, eta konsagraziñoako aktu andi bat da, Jainkoari batek, dan guztia emaiteko, ta irabazi andikoa: eta au da Nobenea.

Bigarren egunean, ta besteetan, guztia esan dan moduan egiten da: ezipada bigarren Oraziñoa, eta da urrengoetarik bat.





BIGARREN EGUNeko ORAZIÑOa

Neure Jesus ona zeure Esperanza zeure adiskideai munduko ondasun guztiak, ta ezebere ezen faltabaga, bear eben guztia emotea agindu zenduztena. Nik ofrezietan deusut Aita S. Ignazioren Esperanza guztizko firme zeugan eukana, zeñ munduko persekuziño guztietan aren biotzeko aingura segurua beti izan zan. Arren indazu, Jauna, neure salbazioaren esperanza andi bat, zeure grazian ondo eginiko obra onetan, aseguratua, eta neure estadian Zu obeto serbietako bear ditudan ondasunak: eta Bederatziurren onetan eska deusudan faborea, zeure gloriarako, ta neure onerako baldin bada. Amen.

IRUGARREN EGUNeko ORAZIÑOa

Neure Jesus ona zeure Amodio santua guztioi ainbeste agindu zenduskuna, zeure mandamenturik andiena legez, Zu geure biotz, ta arima, ta indar guztiakaz amaetako. Nik ofrezietan deusut Aita S. Ignazioren zeuganako amodio txito eraxegia, Serafin baten gisan Santua errezetan ebana, ta zerura ioatea baño bere Zeu obeto serbietea deseerazo eutsana. Arren indazu, Jauna, zeure amodio orren txingar bat, neure biotz guztiti, ta gauza guztien ganean Zeu orain, ta beti amaetako; eta Bederatziurren onetan eska deusudan faborea, zeure gloriarako, ta neure onerako baldin bada. Amen.

LAUGARREN EGUNeko ORAZIÑOa

Neure Jesus ona, geure Lagun urkoaren karidade, edo amodioa, zeure eskolako dizipulu, ta adiskideen señaile ziertua legez, emon, ta agindu deuskuzuna, ta zeureak nortzuk direan, orretan ezagungo dala diñozuna. Nik ofrezietan deusut Aita San Ignazioren karidade guztiz bero, ta bizia, munduko guztiak zeure amodiozko garretan erreezen ikusi gura zituana, arimak salbaetako ainbeste egin, ta sufrietan ebal. Arren indazu, Jauna, santuaren antzeko karidade egiazko bat, neure berba, ta ejenpluz arimen salbaziorako alegin guztia zeure izenean egiteko, eta Bederatziurren onetan eska deusudan faborea, zeure gloriarako, ta neure onerako baldin bada, Amen.

BOSTGARREN EGUNeko ORAZIÑOa


Neure Jesus ona, zeure Paziencian, dotrina, ta ejenpluetan, bizitza onetako trabajuetan, zeure Kurutze santearen, ta geure zerurako bide erreala legez, erakutsi zenduskuna. Nik ofrezietan deusut Aita San Ignazioren Paziencia miragarria, zeure izenean ainbeste kartzela, katea, ta persekuziño; ain pozik eroateko, zeñ ta ziñoan, mundu guztiak zituan kateak baño bere geiago zugaiti eroan gura zituala. Arren indazu, Jauna, zere espiritu, ta indarra, neure bizitzako, gura dituzun neke, ta pena, pobreza, ta beste kurutzeak ondo eroateko, orreekaz zeure atzean zerurako eskallara bat egin dagidan: eta Bederatziurren onetan eska deusudan faborea, zeure gloriarako, ta neure onerako baldin bada. Amen.

SEIGARREN EGUNeko ORAZIÑOa

Neure Jesus ona, zeure Ontasunez Oraziñoaren zeruko ejerjizioa, zeure bizitzan irakatsi zenduana, lurrean guk zeruko bizitza egiteko, eta andi, bear dogun guztia, eskatu, ta erregutuaz erakarteko. Nik ofrezietan deusut Aita San Ignazioren zeruko, ta betiko Oraziñoaren ejerjizio, zeuganik añ ederto ikasi, ta mundu guztiari irakatsi eutsana. Arren indazu, Jauna, gauzarik onen, ta bearren au, zeñ dan Zeu biotzeko erreguz, edo Oraziñoaz billatutea, ta arkietea, ta zeuri beti bear dodana, neure Oraziñoan ondo eskatutea: eta Bederatziurren onetan eska deusudan faborea, zeure gloriarako, ta neure onerako baldin bada. Amen.

ZAZPIGARREN EGUNeko ORAZIÑOa

Neure Jesus ona, zeure bizitzako pausu, ta pasiño, ta eriotzako pena, ta tormentuetan, neure pekatuen penitentzia egiten, ta neure bizio, ta pasiñoak mortifiketan irakatsi zendustana. Nik ofrezietan deusut Aita San Ignazioren penitentzia gogorra, ta pasiño guztiai gerra bizia egiteko espiritu, ta balentia. Arren indazu, Jauna, neure kulpa andiai dagokeen egiazko penitentzia egiteko espiritua, ta zeure graziaz neure bizioak mortifikadu, ta erremedietako bear dan indarra: eta Bederatziurren onetan eska deusudan faborea, zeure gloriarako, ta neure onerako baldin bada. Amen.





ZORTZIGARREN EGUNeko ORAZIÑOa

Neure Jesus ona, munduan iaio zineanik Kurutzean ill artegiño Obedienzia mundu guztiari irakatsi zendutsana. Nik ofrezietan deusut Aita San Ignazioren Obedienzia guztizkoa, zeñ ta bere burua, ta bere Konpañia guztia Erromako zeure Bikarioagan konsagradu eutsuzan, Obedienziatz gauza guztietan, ta beti zeure borondatea obeto egiteko. Arren indazu, Jauna, nik ori berori, Santuak legez, egiteko bear dan espiritua, eta neure burua ukatu, ta zeure borondate santua egiteko grazia: eta Bederatziurren onetan eska deusudan faborea, zeure gloriarako, ta neure onerako baldin bada. Amen.

BEDERATZIGARREN EGUNeko ORAZIÑOa

Neure Jesus ona, zeure Ama santisimea San Juan Dicipulu maiteari enkomendadu, ta zeure, ta gere Amarik onena onraetan, serbietan, ta amaetan erakatsi zenduskuna. Nik ofrezietan deusut Aita San Ignazioren biotz guztiko zeure Amagazko deboziño, ta amodio parebagea, zeñagaz Ejerzizioak eskribietako zeruko Maestra au merezidu izan eban. Arren indazu, Jauna, zeure Ama maitearen egiazko deboziño, ta amodio zerurako eskoji duen señale dana, nik Zeu, ta bera orañ, ta beti biotz guztiti amaetako: eta Bederatziurren onetan eska deusudan faborea, zeure gloriarako, ta neure onerako baldin bada. Amen.

AITA SAN FRANZISKU XABIERREN BEDERATZIURRENA

Santu onen Deboziñoa bederatzi egunetarako, bai eta amar barikue-tetarakoa Indulgenzia andiakaz A. Santu Klemente amabigarrenak onradu eban. Nobenako Deboziño au era onetan, geure eretxiz da guztien artean lenen, edo aurrerengoa. Onetan besteetan legez, konfesadu, ta komulgadu, ta beste esan direan abisuak gorde bear dira, Asietako Santuaren aurrean zeñatu, Kontriziozko aktua egin, eta gero:

SANTUARI EGUN GUZTIETAKO ORAZIÑOa

San Franzisko Xabier glorioso, Indietako Apostolua: Jainkoaren gloriarako, ta zeure onrarako bada, guk alkanzetea Bederatziurren onetan eska doguna, alkanza egiguzu Jaunaganik grazia au: ta ezpabere gure eskaria zuzendu egizu, ta eskatu egiozu guretzat ondoen dagokuna bere gloriarako, ta geure arimen probetxurako. Amen.


LENENGO EGUNeko ORAZIÑOa

Angeru guztien Jauna, zentzuei gizonak gordetea agindu deustezun. Espiritu soberanu oneen merezimentuak eskiniten deusuguz, ta zeure Adirkide andi San Franzisko Xabierrenak, zeñ bere garbitasunagaiti Angerutzat eukia izan zan, ta zerren Angeruak legez gorputz, ta arimako pelliguru askotarik gizonak gordeetan zituan. Arren iguzu zeure Apostolu Santuari emon zendutsan arimako, ta gorputzeko garbitasuna, eta Bederatziurren onetan eska deusugun grazia, zeure onrarako, ta geure onerako baldin bada.

Emen iru Pater noster, ta iru Abe Maria esan, ta gero,

EGUN GUZTIETAKO ORAZIÑOa

Aita S. Franzisko Xabier Santu guztiz andia, sein txikien aoti zeure alabanzak ataretan dituzuna. Jesusen odol preziosoagaiti, ta Birjina Maria Jainkoaren Ama Santisimaren fortute garbiagaiti, zeure karidade andiari esketan deusagu, alkanzadu degigun Jaunaganik, geure eriotzako ordua datorrenean, geure biotza beregandu dedilla, ta munduko gauzetati aldegin dagiala bere amodio eraxegi batera, ta zeruko deseora: orañgiño gas-kiro erabili gaituezan gauzak etxirik, aletin guztiaz billatu dagigun, ta osoro aurkitu dagigun gauza bakar, ta bearrena, zeñ ondo iltea, eta bakean



atsedotea, Ama Birjinearen anparuan, Jesus bere Seme bedeinkatuaren Biotzean, ta geure Jainkoaren laztan guztiz gozoan, ta zeure presenzian, zeñen erreguz grazia au uste dogun. Baia Jainkoak gu bizi izatea gura daben artean; eske gagoz, geure bitarteko maitea, alkanza degiguzula Jau-naganik bizi gaitean gu ill bear dogunak legez, zeure birtuteai iarraituaz, ta beraren borondatea beti eginaz, emeko eriotzea zeruko bizitzearen etea izan dedin, ta alkanzadu egiguzu Bederatziurren onetan, eska deusuguna, Jainkoaren gloriarako, ta geure onerako baldin bada. Amen.

Orañ bakotxak bere konfianza aleginez bizturik, Santuari eskatuko deutso gura daben mesede, edo faborea: eta ori obeto Santuari eragiteko esaten da S. Franzisko Xabierrek berak Jentilen konbersioagaiti egunean egunean egiten eban Oraziño au.

Aita Eterno, geure Jainko gauza guztien Egillea. Akorda zaitte, infiel-en arimak Zeuk bakarrik ezebere ezeti zeure antzera egin zenduzala. Begira, Jauna; zelan zeure oprobio, edo desonran infernua orieezaz betee-tan dan. Begira Jesu Kristo, zeure Seme aekgaiti bere odola emonik il zanari. Sufridu ez dagizula Jauna, emeti aurrera zeure Seme geure Jauna infielen artean ofendidua izan dedila: ezpada zeure Santuen, ta Elexa zeure Semearen Esposa bedeinkatuaren erreguz bigundurik zeure miseri-kordiaz gomutadu zaitetz, ta gestoen itsuera, ta idolatriaz azturik, ezagutu eragiezu Zeuk bialdu zenduan zeure Seme Jesu Kristo, zeñ dan geure osa-suna, ta betiko bizitzea, zeñegaiti libraetan, ta salbaetan garean: berari glo-ria sekula guztietan. Amen.

Bigarren egunean, ta besteetan modu onetan egiten da Nobena au: ezpada biga-rreren Oraziñoa, zeña dan urrengotarik bat.

BIGARREN EGUNeko ORAZIÑO

Arkanjel guztien Jauna, zeñtzuei zeure gloriarako, ta geure onerako egitekorik andienak aginduten deutsezun. Eskinietan deusuguz Espiritu eragille oneen merezimientuak, eta zeure Adiskide S. Franzisku Xabierre-nak, zeñ zeure gloriarako, ta arima askoren salbaziñorako Mandatari seña-ladu zenduan. Arren iguzu grazia, zeure borondate santuak aginduten deuskuzan gauza guztia: ondo egiteko; eta Bederatziurren onetan eska deusugun faborea, zeure gloriarako, ta geure onerako baldin bada. Amen.

Iru Pater noster, ta Abe Maria, ta besteak lenengo egunean legez.

IRUGARREN EGUNeko ORAZIÑO

Angeru Prinzipadu guztien Jauna, zeñtzuek beste Angeruakaz bate-ra, argituaz, erakutsiaz, ta aginduaz geure onari begiretan deusent, Zeuk aginduten deustezun legez. Eskinietan deusuguz Espiritu zeloso oneen

merezimientuak, eta zeure adiskide S. Franzisku Xabierrenak, zeñek berez, ta bere Dizipulu, ta Lagunakaz Angeruak legez argitu, ta komberti-du zituan Erreiñu andiak, ta orreetan arima guztiz asko. Arren iguzu Apostolu Santu onek arimen salbaziñorako euki eban zelo, ta egarria: eta Bederatziurren onetan eska deusugun faborea, zeure gloriarako, ta geure onerako baldin bada. Amen.

LAUGARREN EGUNeko ORAZIÑO

Angeru Potestade guztien Jauna, zeñtzuei emon zendusten demonioak lotuteko esku andia. Eskinietan deusuguz Espiritu poderoso oneen merezimientuak, ta zeure Adiskide San Franzisku Xabierrenak, zeñek eukan gorputz, ta arimetarik demonioak ateretako zure doea, ta indar paregabea. Arren iguzu grazia geure arerioen tentaziño guztiak ben-zietako: eta Bederatziurren onetan eska deusugun faborea, zeure gloria-rako, ta geure onerako baldin bada. Amen.


BOSTGARREN EGUNeko ORAZIÑO


Angeru Birtute guztien Jauna, zeñtzuekaz egiten dituzun, zeuri iago-tzuzan mirari guztiz andiak. Eskinietan deusuguz Espiritu mirragarri oneen merezimientuak, ta zeure Adiskide San Franzisku Xabierrenak, zeñ egin zenduan Miragilla andi bat Apostoluen seña, ta milagroak barriaz-tuaz, jente barri askori zeure Legea irakasteko. Arren iguzu Santu onen umildadea, zeñegaz ainbeste milagroen artean; bakarrik zeure onrea billa-tuten eban: eta Bederatziurren onetan eska deusugun faborea, zeure glo-riarako, ta geure onerako baldin bada. Amen.

SEIGARREN EGUNeko ORAZIÑO

Angeru Dominaziño guztien Jauna, zeñtzuek beste Angeru zure Pro-bidenziaren Ministro guztien aurreti dagozan, eurak zeure borondateari sujetetan direala, ta ori egiteko beti prest dagozala. Eskinietan deusuguz Espiritu agintari oneen merezimientuak, eta zeure Adiskide S. Franzisku Xabierrenak, zeñ askoren agintari izanik, egoan beti zeure ordekoen azpian, aetan zeure Majestadeari begiratuaz, eta aen agindu, ta esanak beti eginaz. Arren iguzu grazia, zeure ordeko guztiai zeuri legez obedezietako, eta Bederatziurren onetan eska deusugun faborea, zeure gloriarako, ta geure onerako baldin bada. Amen.

ZAZPIGARREN EGUNeko ORAZIÑO





Angeru Trono guztien Jauna, zeñetan zagozan zeure gloriako Trono, ta zeure Majestadearen iarrilekuan legez. Eskinietan deusuguz Espiritu txit altu oneen merezimentuak, eta S. Franzisku Xabier zeure gloriaren Trono, ta zeure Izen santua jente askori eroateko ditxazko ontzi eskojijuaenak, zeñek munduko gauzak etxi, ta bere burua ukatuten eban, Zeu bakarrik bere biotzean artuteagaiti. Arren iguzu grazia zeugaiti lurreko gauzak etxiteko, eta zeugan bakarrik atsedoteko, eta Bederatziurren onetan eska deusugun faborea, zeure gloriarako, ta geure onerako baldin bada. Amen.

ZORTZIGARREN EGUNeko ORAZIÑO

Angeru Kerubin guztien Jauna, zeñtzuk iakituria txito andiaz apaindurik dagozan. Eskinietan deusuguz Espiritu iakitun oneen merezimentuak, eta zeure Adiskide S. Franzisku Xabierrenak, zeñ iakituria mirarizkoaz bete zenduan, eta zeure Misterio eskutaduak erakutsi zeuntsazan, berak arima askori zeure fede, ta legea agertuteko. Arren iguzu zeure bildur santu egiazko iakituria dana, eta geure ejenplu, ta berbakaz besteai guk zeure legea gordeten irakastea: eta Bederatziurren onetan eska deusugun faborea, zeure gloriarako, ta gere onerako baldin bada. Amen.

BEDERATZIGARREN EGUNeko ORAZIÑO

Angeru Serafin guztien Jauna, zeñtzuk amodio txito eraxegiaz amaetan zaituezan. Ofrezietan deusuguz Espiritu amodioz bete oneen merezimentuak, eta S. Franzisku Xabier, Serafin baten gisan zeure amodioan erasegiarenak, zeñek benzidu zituan, ezin esan alako nekeak, ta biziaren peligrak, Zu amaeteagaiti, ta ezaguera baga ofendietan zinduezanok Zeu amadu zengiezan. Arren iguzu grazia, Zeu gure Jainko, ta Jaun bakarra amaetako, eta al daiguzan guztiak zeure amodiora erakarteko: eta Bederatziurren onetan eska deusugun faborea, zeure gloriarako, ta geure onerako baldin dada. Amen.

